

TOKIKOM

2014ko urria | 141. zenbakia

ai kor!

Txuma Olagüe talde korala

Mende erdia doinurik doinu



Antena kolektiboak Antena parabolikoak TB digitala, lurreko TB eta satellite bidezko TB
Atezain automatikoak Bideo-atezainak Mantentze-kontratua Zirkuitu itxiko telebista



Inestel

telekomunikazioak

Antenas Vizcaya

URTARRILERAKO telebista **ANTENAK**
SINTONIZATU behar dira.

Horretarako, DIRU-LAGUNTZAK daude, eta
IZAPIDEAK GEUK bideratuko dizkizugu

Urkiola, 2 - 48160 DERIO Bizkaia
info@inestel.com



94 454 14 60



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan, Arrekili, Tximintx eta Altzora)
Tel.: 94 452 34 47 / 688 86 41 35
aikortxori@aikor.com / www.aikor.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Atotz Goikoetxea, Beñat Aiertza, Gaizka Peñafiel, Xabier Díaz, Jon Goikouria Larrabeiti, Aner Mentxaka, Oihane Goienetxe Ana Leniz, Derioko Liluraturia taldea, Itsasne Zubiri, Jose Angel Mentxaka, Bestorrene, Oihana Astobieta, Belen Gana eta Ines Serrano

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Gaizka Eguzkitza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 7.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

Aikor! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.



diruz lagundutako aldizkaria



12 Doctor Deseo taldea



22 Zamudioko jaiak



26 Topaeguna

- 4 Eritxia
- 5 Laburrak eta albisteak
- 12 Gurean izan da... Doctor Deseo musika taldea
- 14 Gaztea eta... Aketza Alberdi Beaskoetxea
- 16 Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
- 18 Txuma Olagüe talde korala
- 22 Zamudioko jaiak
- 26 Topaeguna
- 28 Txakolina, aurtengo uzta
- 30 Txorierritartua... Melania Rosique
- 32 Berbalagunen txokoa
- 34 Teknologia... Phising
- 35 Aikorrizketa... Euskara 15 urte barru
- 36 Sukaldaritza
- 37 Denborapasa
- 38 Agenda

Centro Dorral
Txorierri
944 475

Rocio Astorkia Bordegaray
Kepa Herguedas Manso
Maria Conde Bilbao
Ainhoa Rodríguez Mella

Milxine 6, behe - 48150 - Sondika (geltokiaren aurrean)
T.: 944 711 639 - Larrialdiak: 670 885 885 - www.dorral.com

Goiri'78 s.l.
Zerbitzu ofiziala

Izarza Pol.
48150 Sondika
Bizkaia

94 453 25 15
94 453 39 31

GALAISA
Estetika eta ile-apaindegia
94 453 04 85 - 94 471 10 51

Sabino Arana 1-3. SONDIKA

Memoria historikoa



BEÑAT AIARTZA
(Irakaslea)

Lehenengo hilabetea, lagun batek iri-tzi-artikulu bat argitaratu zuen *Durango* aldizkari digitalean, hurrengo egunean egingo genuen kantu-poteo-ari sona eman nahian. Lehenik eta behin, egin zuen publizitateagatik eskerrak eman nahi nizkioke. Hala ere, artikulua idazteko erabili zuen aitzakia bueltaka

eduki dut gogoan, eta horren gaineko hausnarketa bat egin behar nuela iruditu zait, neure burua bere egoera berean ikusi baitut behin baino gehiagotan.

Artikuluari, *Eperrak* abestia birjintasunaren laudorioa zela zioen, eta hurrengo eguneko kantu-poteoan ez zuela kantatuko. Bere arrazoia izango zituen horrela jokatzeko eta erabakia guztiz errespetagarria iruditzen zait, gainera ados nago berarekin birjintasunaren kontu horri dagokionez, baina uste dut askotan ahazten dugula memoria historikoa zer den, eta gutako bakoitzak erabat barneratuta dugula. Azken urteotan, Guda Zibileko hildakoak direla-eta bueltaka darabilzki-gun hitzak dira, eta nagusiki horrekin lotzen ditugu; nik beste zentzu batean erabili nahi ditut.

Memoria historikoa niretzat zentzu-rik badu, nor naizen / nortzuk garen ulertzearena da, eta kantua dut hori egiteko modurik hurbilena. Abestiak herri jakitu-

riaren eta ondare kulturalaren parte handi bat dira, zer izan garen eta zer garen erakusten digutenak, gure memoria historikoarenak, hain zuzen. Euskaldunok esklabo-tratulariak izan gara, intsumisoak, pedofiloak, abertzaleak, ateoak, mendekuzaleak, puritanoak, bakezaleak, erromantikoak, sexistak, mozkortiak, diruzale amorratuak, biktimak eta borrarroak. Are gehiago, esango nuke pertsonaia horiek guztiak gure bizitzaren momenturen batean antzetzu ditugula, nahiz eta hori onartzea beti atsegina ez den. Gure kontzientziaren alde ilunenean bada ere, denok daramatzagu pertsonaia horiek barruan. Ageri-agerian, batzuetan; ezkutatu guran, beste batzuetan. Zailtasuna, nire ustez, hori ikusi eta onartzean datza, eta horretarako umiltasun handia behar da.

Oztopoak oztopo, badago gure artean ariketa hori egiten diharduena. Uxue Alberdik, esaterako, "...konplize ditut eta mai-te ditut denak..." kantatzen dio emakume-ari. Hara heltzea bai dela marka. Nik nahi nuke egun batean, gure artean, umiltasunaren eta jakituriaren utopia hori bizi...

Atsotitzak Arrosen ondoan dago-nak, haren usainetik zerbait hartzen dinoskun arren, ez dira gixi hegaz egiteko bildur diran txorie-rritarak. Itxuraz, herritarren % 25 he-gazkinera igoteko ikaraz bizi dira, hau da, sei bidaiaritik bat. Aluminiozko hegazti erraldoiak kaiolan sentiduara-zoten ditu, eta, hegoak ezin zabaldu-rik, hutsaren amiltegiaren behera doro-az, pentsamentuz baino ez bada be. Ikara eta katastrofe sentimentuek burruka edo iges egiteko erreakzioa sortzen dabe: bihotza bizkortu egiten da, arnasa lastertu eta tarteka eten, eta muskuluak tenkatu, munstroari

Hegaz



ATOTZ GOIKOETXEA
(Filologoa eta itzultzailea)

aurre egiteko prest. Aerofobiaren kausak zehaztea ez da erraza, baina klaustrofobia edo bertigoia izaten dira ohikoenak. Halan be, zein bitxia jakitea askok eta askok bildur guztiak uxatzen dabezala hegazkinaren kontrola euren dala imajinaten dabenean. Hau da, euren bizitzak ez dagozala inoren eskuetan, ezpada ze eurenetan. Ez ete da horixe, norbere bizitzaren agintea hartzea, geure burua-rengandik askatzeko hegaldirik zirraragarriena.

IRATXO
gozotegia
tarta pertsonalizatuak
trufak
helak
pastelak
postak
Mikel Zarate, 2 - 2. floor - Sondika, 48130 - 94 453 89 19

izpilen
PARAFARMACIA BELAR-DENDA
Sabino Arana, 3. floor - 48150 SONDIKA (Bizkaia)
94 655 80 00 - 689 99 88 43 - izpilen@gmail.com

HARTEGIA - URDAITEGIA
VICTOR
ARTESAU-ELABORAZIOA
Okela ekoizten dugu:
odolosteak, borizoa,
bustorra, solomoak...
Plater aurrekoizinatua
Goini, 4 - 48150
Sondika - Bizkaia
94 453 16 17



1000 baietz!

Etxe bat, lagun bat. EGIN ZAITEZ AIKORILAGUN

zeurea
neurea
geurea

AIKOR!lagun 2014 spota ikusgai

www.aikor.com

facebook

Urdaibaira txangoa

Lezama Bizirik elkarteak txango berezi bat antolatu du azaroaren 15erako. Urdaibaiko Biosfera Erreserba ezagutzera joango dira eta txangoa txalupaz egingo dute. Azalpenak Edorta Jimenez idazleak emango ditu. Gainera, kopaua eskainiko da. Txalupan 20 lagunentzako lekua dago eta horregatik bada komenigarria izen ematea ahalik eta ari-nen egitea: lezamabizirik@lezamabizirik.com. Txangoak 15 euro balio du bazkideentzat; eta 25 euro, gainontzekoentzat.

Errigora ekimena

Txorierriko hainbat dendatan Nafarroako produktuez betetako saskiak ipiniko dira ikusgai. Hala, bat egingo da Errigora ekimenak Hegoaldeko euskara eta ekoizleak babesteko mar-txan ipini duen kanpainarekin. Saski bakoitzak 50 euro balio du eta pre-zioaren % 25, besteak beste, Erriberako ikastoletara eta AEKra bideratuko da. Saskiak azaroaren 12ra arte salduko dira. Horietako bat nahi duenak dendan topatuko duen txar-tela bete eta saskia bidaliko diote.




**LIBRERIA
SONDIKA
LIBURUDENDA**

ARTE EDERRAK - ESKULANAK, E.A.

JESUS MANUEL LANDA ANTOLIN

Fotokopiak, koadernaketa, plastifikatuak,
prentsa, aldizkariak, liburuak,
papgintza eta eskulanak

Mikel Zarate, 2 - Tel. / Faxa: 94 453 16 77
48150 SONDIKA (Bizkaia)

ASESORÍA

Luis Fernando Aguirre, s.l.

Mateo Bidaurrezaga, 1
Tfn.: 94 453 33 28 - Fax 94 471 06 28
48150 SONDIKA (Bizkaia)

**Consulting
Sondika s.l.**

Sabin Askolizaga
Asesurur agentia
Allianz
609 475 746

Mibana, 6 behean
48150 Sondika-Bizkaia
T.: 94 453 18 07
Faxa: 94 453 60 27



**yedra
floristas**

Mikel Zarate, 2 - 48150 Sondika - Bizkaia
Telefonoa: 94 453 14 57 - yedrainterflora@hotmail.com

Kurtze dantza taldeak, 35 urte

Badira hogeita hamabost urte Kurtze Lezamako dantza taldea sortu zela, eta azaroaren 21ean eta 22an ospatuko dute urteurrena. Egitarau oparoa antolatu dute egun bietarako.

Azaroak 21, barikua. Kultura-aretoan

–18:00: Ikastaroak: zapiak janztea; abarkak lotzea; gerrikoak lotzea.

–19:00: Euskal folkloreaki buruzko hitzaldia.

Azaroak 22, zapatua. Frontoian

–11:00: Dantzari txikien kalejira.

–12:00: Txorierriko dantzari txikien alardea.

–13:00: Herriko kaleak girotea.

–15:00: Herri bazkaria.

–18:00: Euskal dantzen alardea.

–19:00: Herriko kaleak girotea.

–20:00: Erromeria.

–21:00: Bokatak, indarrak berritzeko.

–22:00: Berbena.

Mosaiko erraldoira

Gure Esku plataformak mosaiko erraldoia antolatu du azaroaren 8rako, Donostian. Guztira 5.000 lagun batzea nahi dute antolatzaileek. Edonork parte hartu ahal du mosaikoan, baina aldeztu aurretik izena eman beharko da, www.gureeskudago.net webgunean. Txorierriko autobus bi abiatuko dira Donostiara. Ekitaldian parte hartu nahi duenak bere herriko arduradunekin ipini behar du harremanetan. Izena ematea azaroaren 4ra arte egongo da zabalik.

Auto klasikoak ikusgai, Loiu



a: Loiuako Udala

Loiuako Udalak auto klasikoak erakusketara bat antolatu zuen urrian. Erakusketaren laugarren edizio honetan 103 auto inskribatu ziren, baina, antolatzaileen arabera, 120 auto egon ziren ikusgai. Udala pozik azaldu da parte-hartzaile kopuruarekin eta, aurtengo zein aurreko urteetako arrakasta ikusita, ekitaldia datorren urtean ere antolatuko dutela iragarri dute. Autoez gainera, motor batzuk eta kamioi zahar bat ere ikusteko aukera egon zen. Sariak hainbat kategoriatan banatu zituzten. Hala, Ford A batek jaso zuen “urrunenetik etorritako autoa” saria. Autoa Kanaria Handitik etorri zen eta



“autorik zaharrena” saria ere eskuratu zuen. “Autorik dibertigarriena” Chevrolet furgoneta bat izan zen, eta “autorik doto-reena”, Lotus Seven bat. “Loiuako saria” Volkswagen furgoneta bati eman zioten.

elekma
LURRATZEREN BAT DUTEN ETXETRESNA ELEKTRIKO BERRAK
TELEBISTAK ETA ETXETRESNA ELEKTRIKO TXARRAK

Lehenengo mailak • Prezioak onak

BOSCH, SIEMENS, BALAY

Txorien etorbidea, 25-3.H • 48180 Loiu
T: 944 539 232
www.elekma.es

TURREGOITI
JATETXEA

Laurola etorbidea, 27
48180 Loiu-Bizkaia
T-Faxa: 94 453 24 40
restauranteturregoitii.com

TXORIERRI
Inmobiliaria

Justo Ajuria, 2 Sondika - Bizkaia
Tel./Faxa: 94 471 12 82 - 94 471 18 11
txori-erri@euskalnet.net

eturregoitii gerta

ABOKUETARITZA - ZAKAZIOA
ALOKATZEAK - ENKALDATZEAK
SALEROKETAK
SEGUROS BILBAOEN AGENTZIA

BIZKAIA
irratia

BIZKAIA IRRATIA **Txorierrin**

F.M. **102.6** Mhz

www.bizkaiairratia.com

Euskara gehiago erabiltzeko plana, Larrabetzun

Larrabetzuko Udalak aholkularitza enpresa bat kontratatu du, herrian euskararen egoera zein den azter dezan eta datozen bi-hiru urteetarako jardunbideak aurkez ditzan. Azaldu dutenez, azkeneko urteotan nabarmen jaitsi dira euskararen ezagutza eta erabilera Larrabetzun. Egoeraz kezkatutik, herriko eragile batzuk batu ziren udaberrian, euskararen erabilera areagotzea helburu harturik. Eragileak hauek izan ziren: Udala, eskola, Txinpasmendi guraso elkarte eta Arrekikili euskara elkarte.

Aholkularitza enpresa lanean hasi da dagoeneko, eta abendurako espero da diagnosia aurkeztea eta aholkuak ematea. Datu orokorrak batzeaz gainera, herriko elkarteetako kideak eta herritarrek elkarrizketatuko dituzte informazioa gertutik ezagutzeko. Galdetegi txiki bat ere utzi dute Udaletxean, Kultura-etxean eta beste hainbat lekutan, eta nahi duenak bete ahal izango du. Beste alde batetik, hiru bide ipini dituzte herritarren eskura proposamenak egiteko: Anguleri kultura-etxetik pasatzea, 16:00etatik 20:00etara;



larrabetzu.euskaraz@gmail.com helbide elektronikoa; eta 662 30 37 56 telefono zenbakia. "Oso inportantea da guztiok parte hartzea, horregatik animatu nahi ditugu herritar guztiak azterketan parte hartzera".

Azaroaren 25a Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna da eta data horren haritik ekintza sorta zabala antolatu dute elkarteek eta erakundeek gure herrietan.

Azaroak 21, barikua

–17:00: "Desioen lorategia", Larrabetzuko ludotekan.

Azaroak 22, zapatua

–10:00: Autodefentsa ikastaroa, Larrabetzuko eskolan, Emagin elkarteak antolatua. Izena ematea: azaroaren 3tik 14ra.

Azaroak 25, martitzena

–12:00: Eraso sexisten aurkako kontzentrazioa, Zamudioko Sabino Arana plazan.

Genero indarkeriaren kontra



–16:30: "Ertzaintza eta genero indarkeria" hitzaldia, Derioko Kultur Birikan, Sutondoan elkarteak antolatua.

–19:00: Eraso sexisten aurkako kontzentrazioa, Zamudioko Sabino Arana plazan.

–19:30: Manifestazioa, Derioko elizatik.

–19:30: Kontzentrazioa, Larrabetzuko plazan.

Azaroak 28, barikua

–19:30: *Acusados* zine-foruma, Sondika-ko Kultur Etxean.

–19:30ean: "Tutte contro Verdi", Miren de Miguelen eskutik, Gurea Aretoan.

LOTARIA LEZAMA

- Bonolotoa Loteria Primitiboa 1-X-2 Saritzarra Euromiliolak
- Gabonetako eta Erregetako loterien erreserbak
- Zerbitzua, enpresentzat, tabernentzat, etab

ARETXALDE, 159 • 48196 LEZAMA • TEL./FAX: 94 455 64 87

Club Hípico Aretxalde

Pony club - Zaldiketa ikastaroak
Aisialdirako landak - Apogilo zerbitzua
Salto - Txangoak - Animalien heziketa

Telefonia:
IBON - 659 90 75 88
Aretxalde auzoa, 89 • 48196 LEZAMA

BOLAKLEBU JATETXEA

Garaioltza, 1 LEZAMA

94 455 41 10

GOXO-GOXO LOHTIZUN

Arratsaldeko zabalik
Ogile egunero
Patelek enbarkatzen

Garaioltza, 776
48196 Lezama
94 455 42 72
goxogoxolohitzun@hotmail.com

KIMA Landarak

LANDARE APAINGARRIA

Goikoltza 59 • Tel: 94 455 51 00 • Fax: 94 455 61 77
48196 LEZAMA (BIZKAIA)

LEJARRENE JATETXEA

Garaioltza auzoa, 12 • LEZAMA • T: 94 455 65 46

Derioko emakume baserritarrei buruzko liburua

Landa-eremuko Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatu zen urriaren 15ean, eta Derioko Udalak omenaldia egin zien herriko emakume baserritarrei. Horrezaz gainera, *Derioko azken emakume baserritarren liburua* aurkeztu zen jendaurrean. Liburua Fernando Pedro Pérezek idatzia da eta 70 emakumeren testigantza jaso du bertan. Kultur Birikan dago salgai.

Emakume baserritarren lana funtsezkoa izan arren, lan isila, gogorra eta esker txarrekoa da. Horregatik antolatu zuen Udalak iaz omenaldia lehenengo aldiz. Ekitaldi instituzionalaz aparte, erakusketa bat egin zen eta ehun emakume baserritarren argazkiak ipini ziren bertan ikusgai. Antolatzaileek materiala biltzen jarraitu dute eta argazki berriak sartu dituzte erakusketan. Aurten ere antolatu da, eta urriaren 29ra arte egon da ikusgai Kultur Birikan.



Amenabar eta Lekue, Bizkaiko Bertsolari Txapelketan



Urrian hasiera eman zaio 2014ko Bizkaiko Bertsolari Txapelketari. Dagoneko hiru kanporaketa egin dira eta hurrengo azaroaren 2an izango da Mallabiko frontoian. Kanporaketa horretan Malen Amenabar Larrañaga larrabetzuarrak hartuko du parte. Malenek Uribe Buroeko Txapelketa irabazi zuen, eta, be-

raz, zuzeneko txartela lortu zuen txapelketaren kanporaketetarako. Azken kanporaketa azaroaren 9an egingo da Ibarreta Zeanuriko frontoian.

Finalaurrekoei dagokienez, lehena azaroaren 22an egingo da Etxebarriko frontoian; bigarrena, azaroaren 30ean, Iparralde Urdulizeko kiroldegian; eta hirugarrena, abenduaren 7an Zelaieta Zornotzako zentroan. Etxahun Lekue Etxebarria larrabetzuarra Urdulizeko finalaurrekoan egongo da. Lekue finalista izan zen 2012ko txapelketan, eta, ondorioz, zuzenean pasatu da finalaurrekoetara. Finala abenduaren 20an jokatu da Bibao Arenan, Miribillan. Saio guztiak 17:30ean hasiko dira.

Sarrerak bertsosarrerak.eu webgunean eskura daitezke. Era berean, saioen egunean, ordubete lehenago, bertan erosi ahalko dira txarteldegian. Saio guztietarako bonoa erosteko aukera ere egongo da bertsosarrerak.eu webgunean. Hala ere, finalerako sarrera ez dago bonoaren barne.

Txapelketari buruzko informazioa bertsozale.eus/bizkaikotxapelketa webgunearen bidez eskura daiteke, Facebooken bidez eta Twitterren bidez (@bbertsozale, #josi). Gainera, sakelako telefonoetarako aplikazioa egin dute, APP Storetik deskargatu behar dena.

Abelino Arraindegia

Gorbea kalea, 4 - 48160 DERIO
T: 94 602 75 25-6

BASALBEITIKO TXAKOLINA

Bizkaiko Txakolina
Denominazio de Origen

Goititza buzoa, 37
(LEZAMA)
94 455 61 46

ADARVE KAFETEGIA

Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

Arantza Amondarain Lasa
Ginekologoa

Txosten etorbidea, 3-4
413. bulegoa
48160 Derio

Teléfono eta faxa
94 454 44 56
a.amondarain@guadalupe.net

Baserritarren Alkartea
Lezama S. Coop.

Aretxalde, 21 BIS
48196 LEZAMA
☎ 94 455 60 16
e-mail: lezama@fcae.org
Bazkideak: 144

Pentsu naturalak



Emakumeen eskubideak aldarrikatu dituzte Zamudion

Inisitue gazte asanbladak jaialdi feminista antolatu zuen urriaren 18an Zamudion. Ekitaldi horrekin hasiera eman zion aurtengo ikasturtari. "Abortuaren Legearen erreforma bertan behe- ra gelditu denez, jai bat egitea pentsatu genuen, baina hainbat eztabaidaren ondoren zerbait zabalagoa egitea erabaki genuen". Hala, poteo girotua antolatu zuten eta zapi moreak banatu zituzten herritarren artean. Herria ere apaindu zuten tabernarik taberna. "Pankarta aldarrikatzaileak egin genituen: *Babosak baratzeria eta olagarroak itsasora*, esaterako. Esaldi matxistak ere erabili genituen karteletan, adibidez, *ez egin nega-*

rrik, hori neskek egiten dute-eta. Jendeak ikus zezan zelako gauzak esaten ditugun egunero konturatu barik. Kartel horien ondoren, esaldi positiboak zituzten karte- lak ipini genituen". Konfetiak, apaingarri moreak... ere erabili zituzten. Trikitila- riek, pandero-joleek... girotu zuten eki- taldia, eta 30 gazte inguru elkartu ziren. Nagusiek eta umeek ere egin zuten bat ekintzarekin. Gazte asanbladak emaku- meen eskubideen aldeko hainbat ekin- tza antolatzen ditu Zamudion urtean zehar. Besteak beste, autodefentsa femi- nistari buruzko ikastaro bat, abortuari buruzko hitzaldi bat eta antzerki bat egin ziren iaz.

ALTZORAREN ARGAZKI LEHIAKETAREN IRABAZLEA.-

Arantza Laña Aranburu izan da. Altzora Sondikako euskara elkarteak udako oporren haritik antolatu zuen lehiaketa eta irabaz- leak Santa Polan, abuztuan, egin zuen argazkia aurkeztu zuen ber- tara. Lanari "Igeri egiten hasi ziren" ipini dio izenburu. Irabazleak lan- detxe batean gau bat ematea jaso du saritzat. Epaimahaia Sondika Goiri argazki taldearen ordezkari- osatu zuten.



Aislamientos Derio Tabikeak
Pladurrezko sabaia eta apalategiak
Sabaia erregistragarriak
Isolamendu termiko eta akustikoa

Alertza Ibaia plaza, 6 - 48160 Derio
T: 670 497 928 - F: 944 541 121
www.aislamientosderio.com

ASTIKENEMOTOR
www.ASTIKENEMOTOR.com

DERIO - 946 451 781

BIZKARGI
TABERNA ETA JANARIA

Urkiola, 6 DERIO 944541655

ELORRIETA INSTALACIONES
ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA

Uribe kalea, 12 behea Derio 48160
94 454 03 86
639 57 98 48 - 639 58 25 47

MARMOLGINTZA GOYO
SUKALDE-GAINEKOAK OBRAK HILERRIAN

Ugaideguren 1 ind, 18-B nabea
48160 Derio, Bizkaia
T.: 94 454 02 93 - Faxa: 94 454 50 63

aldekone hartz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

Uribe 7, behea
48160 DERIO (Bizkaia)

-Especialitate guztiak zentro bakar batean
-Aurrekontua doan
-Especialitatea; umeak

CDR jaialdia, azaroaren 1ean

CemenDerioRock jaialdia (CDR) da Santzoka Derioko elkarteak urtean zehar antolatzen dituen ekitaldi garrantzitsuenetarikoa. Hain da garrantzitsua, ezen zazpigarren edizioa baita aurtengoa. Jaialdia azaroaren 1ean egingo da eta, adierazi digutenez, arrastiko 5etan irten-go dira trepakalejiran Kultur Birikatik. "Deustuko gaztetxeokoe utzitako gudi bat erabiliko dugu". Frontoitik oinezkoentzako gunera joango dira eta adi egon beharko da "sorpresaren bat egongo delako". Kazan Zamudioko *urbanfolk* taldeak kontzertu akustiko bat eskainiko du iluntzeko 8etan oinezkoentzako gunean.

Ostean, herri afaria egingo dute frontoian. Afarian nahi duten guztiek hartu ahal izango dute parte. Bakoitzak eraman beharko du bere jatekoa, hori da baldintza bakarra. Antolatzaileek janaria prestatzeko plantxak, mahaia, aulkiak eta mahai-tresnak ipiniko dituzte parte-hartzaileen eskura. Kontzertuak gaueko 12etan hasiko dira eta eszenatokira Undécimo Mandamiento, Bajo Presión eta Inmolados taldeak igoko dira. Kontzertuak amaitu ondoren, dj batek hartuko du gaua girotzeko ardura. Txosnan lortzen duten diruaren zati bat herriko egitasmo edo jarduerari laguntzeko erabiliko dute.



Undécimo mandamiento taldea

biliko dute. "Iaz, adibidez, herriko roko-dromoa hobetzera bideratu genuen". Beste zatia hurrengo CDR jaialdia antolatzeko erabiliko dute.

a: Larrabetzuko produktuen azoka / larrabetzutik.org

Baserriko produkturik onenak izan ditugu ikusgai eta salgai Lezaman, Loiu eta Larrabetzun: barazkiak, gazta, ogia, kontserbak, eztiak, txakolina, gozokiak, odolosteak, txorizoak, olioak... Horrezaz gainera, 84 kilo sardina erre ziren Lezaman, eta euskal labela zuten oilasko-pintxoak eskaini ziren Loiu. Artisauen lana ere ikusi ahal izan genuen azken herri horretan, eta Egan taldeak girotu zuen hitzordua. Larrabetzuko baserritarrek plazara eraman zituzten beren produktuak, eta jendetza handia batu zen bertan eguerdira arte. Izan ere, eguraldi ederra

Urriko azokak



izan zuten, kalera irtetera animatzen zuena.

Bestalde, Altxora Sondikako euskara elkarteak ardoa dastatzeko ikastaro bat antolatu zuen urrian. Hamaika pertsonak hartu zuten parte, eta, ardoaren ezaugarri nagusiak ez ezik, ardoa zelan dastatu ere ikasi zuten. Sondikako Azoka Enologikoari begira egin zen ikastaro hori. Azoka urriaren 12an egin zen, Udalak antolatutik, eta ardoa dastatzeko eta erosteko aukera izan zen bertan. Aurtengoa seigarren edizioa izan da eta, aurreko urteetan bezala, oso jendetsua izan zen. Besteak beste, Txorierriko txakolina eta Errioxa, Jerez eta Prioratoko ardoak eraman ziren azokara.

LOREGARBI GARBIKETA ZERBITZUAK

Gutxi-ikusiak, orokorrean
Auzokoen komunitateak
Mantentze gutxi-ikusiak
Bulegoak eta lokalek
Oinuen amariako garbiketa
Ikastetxeak
Zabon kileak

Besaide Plaza, 1 - B° Aldekoa
48160 DERIO (Bizkaia)
lloreagarbi@euskalnet.net

Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93

OSTEOPATIA-ZENTROA
ORDEZKO TERAPIAK

lasai

Luis M° Asensio
Terapeuta naturopata

Larrabari, 1 Ionia - 48160 DERIO
Tel: 94 454 10 28 - Sakelekoa: 655 74 24 69
osteopatiolasai@gmail.com

KAFETEGIA

IAZI
JATETXEA

Jata kalea, 2 - DERIO
Tel.: 944 54 29 56

MAS X MENOS

Janari-denda
Prezio paregabeak

Bestorrene, 3 DERIO
670 60 70 41

LEIRE BEGOÑA

ULEAPAINDEGIA

MUNGIALDE ETORBIDEA, 20
48160 DERIO
94 454 26 32

Jarrai jarraituz Facebook-en

HARAGITEGIA
URDAITEGIA
IMAZ

MUNGIALDE ETORBIDEA, 2
TEL.FNOA: 94 454 10 75

DERIO

Eskerrik asko
etortzeagatik

ZELAN?

POSTAZ:

Aikor!lagun fitxa(*) bete eta bidali:
Aresti, 2 behea - 48170 - Zamudio

E-POSTAZ:

aikortxori@aikor.com helbidera

TELEFONOZ:

94 452 34 47
688 86 41 35

AHOZ:

Zure herriko euskara
elkarteko kideren bati esan

(*) Fitxa aldizkarian bertan eta
erakundeetan, liburutegietan,
komertzioetan... utziko ditugun
diptikoetan topatuko duzue.



Egin zaitez Aikor!lagun

Etxe bat, lagun bat



Egin zaitez Aikor!lagun



Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____

e-posta: _____

IBAN+Bankuko zenbakiak: _____

Urteko kuota: _____

Aldizkaria jasotzen duzu? _____

Sinadura _____

30 euro _____ Beste bat _____

Orri hau helbide honetara bidali:

Aikor! Aldizkaria

Aresti kalea 2, behea - 48170 - Zamudio



15/1999 Lege Organikoari jarraituz, hau jakinarazten dizugu: formulario honetan sartzen dituzun datu pertsonalak fitxategi batean gordeko dira. Fitxategiaren erantzulea TOTODAN TXORIERRIKO EUSKARA ELKARTEEN FEDERAZIOA da eta datuok kudeatuko ditu. Kontrakoa esaten ez duguzun bitartean, zure datuak kudeatzeko balmena dugula ulertuko dugu. Dena dela, edozein momentutan datuok eskuratu, baliogabetu eta zuzendu ahaliko dituzu. Horetarako, helbide honetara jo beharko duzu: ARESTI KALEA 2-BHEA, 48170 ZAMUDIO (Bizkaia).

“Bira festa handia izaten ari da, desiratzen genuen kontzertua”

t: Itxaso Marina / a: Jordi Borrás, Gigio's

Birari ekin zenietenetik 20 kontzertu baino gehiago eman dituzue Euskal Herrian eta Espainian. Zelan zabiltzate pasatzen?

Festa handia izaten ari da benetan, ospakizun hutsa. Bira hasi baino lehen esan genuen moduan, hau desiratzen genuen kontzertua da. Eta oso modu zuzen batean nabaritu dugu kontzertuetara etorri direnek disfrutatu egin dutela, eta guk haiekin.

Zer moduz Derion?

Eszenatokia Reincidentes Sevillako taldearekin partekatu genuen eta jendetza haundia egon zen, eta ageriko sentsazioak. Haiek bezalako taldeekin eszenatokia partekatzea luxu eta bizigarria da beti.

Hitz egin zuen azken lanari buruz: *Busco en tus labios... lo mejor del Deseo*.

Gogo handiz egindako lana da, izan ere, ekarpen ezberdin bat egin nahi genuen, gehiago eskaini. Alde batetik, DVD bat egin dugu eta han, iazko biran, antzoki nagusietan grabatutako abestiak sartu ditugu, baita askotan izaten garen lekuetan grabatutakoak ere, hala nola Zorroztako gaztetxean, Sangüesen Donostiako jaietan, RazzMatazz Bartzelonako aretoan edo San Mamés zaharrean. Bestalde, dokumental bat ere sartu dugu lanean. Musikariek, kazetariek, idazleek, zaleek, taldearen lehengo kideek eta guk geuk Doctor Deseori buruz dugun ikuspuntua azaltzen dugu bertan. Taldearekin egindako lana da, baina taldetik kanpo. Eta azkenik, estudioan grabatutako hiru abesti, bide berriak zabaltzen dituztenak.

Lanak liburu-itxura du; horrela % 21eko BEZa saihestu egin duzue.

Bai. Liburu-formaturako BEZa % 4koa da eta horrek aukera ematen dizu luxuzko lana –liburua, CDa eta DVDa– CD arrunt baten prezioan editatzeko. Irudimeneko egintza izan da kultura munduak jaso duen erasoaren aurrean.

***Busco en tus labios* abestiak hasiera eman zion Doctor Deseoren ibilbidea-**

FRANCIS DIEZ | Doctor Deseoren abeslaria

Busco en tus labios... lo mejor del Deseo birak Deriora ekarri zuen Doctor Deseo taldea irailean. Publikoak erantzun ezin hobe eman zion, betiko moduan, eszenatoki gainean bere onena eman zuen taldeari.



ri. Eta haren bertsio berria egin duzue azken lanari begira...

Abesti horri esker lehiaketa bat irabazi eta lehen diskoa grabatu genuen. Grabazio hori orain entzuten bada, nahiko kaskarra da, jakina. Baina, gure ustez, bazuen zerbait gaur egungoa zena. Abestia birmoldatu egin dugu, oso indar

berezia eman diogu eta hasiera bilakatu da berriro; aurtengo biraren kontzertuen hasiera.

la hiru hamarkada daramatzazue eszenatoki gainean. Zein da sekretua? Gainera, kontuan hartuta, zuen hitzetan, zuek ez zaretela “etorkizuneko taldea”...



Horrek zerikusia eduki dezake, beharbada. Oraina denak emanda bizi izatea, momentu bakoitza, eta helburuak ahaztu. Gure nahia haxe dela jakitea: gogorlan egin eta ahaleaginean gure onena ematea; gure lana mimatzea, eta horretarako, behar baino gehiago ez nekatzea. Eta gure burua ez nekatzea ere bai.

Eta barruraino sartzen diren hizkiak, sentimenduak... beharbada.

Nirea den, ezagutzen dudana, eremu batean nabil beti bila; eta eremu hori guztion da aldi berean. Jendearekin emozioak eta sentimenduak partekatu, horiek piztu... ahal izatearen arrazoiak... bat hori izan daiteke, beharbada.

Busco en tus labios... lo mejor del Deseo zuen 14. lana da. Nahi duzuen lekuan zaudete?

Nahi duguna egiten gabiltza eta publikoaren erantzuna gero eta hobe da. Nahi duguna egiten jarraituko dugu. Bilatzen jarraituko dugu, jolasten.

Talde feministatzat duzue zuen burua.

Feminista izatea normala izan beharko litzateke gaur egun. Feminismoak ikuspuntu ezberdina ematen du bizitzari buruz, harremanei buruz, politikari buruz... Gure aldetik, saiatzen gara gogorazten, gauden lekuan bagaude, hori emakume askoren eta gizon batzuen borrokari esker dela; oraindik bide luzea dugu aurretik, eta duguna feminismoari zor diogula.

Eta zelan tratatzen ditu musika-munduak emakumeak? Euskal Herrian, adibidez?

Euskal Herriko musika-panoramak etengabe egiten du gora eta panorama horretako zatirik aktiboena eta sormen

"Feminista izatea normala izan beharko litzateke gaur egun"

"Bira amaitu eta buru-belarri ekingo diogu hurrengo lanari"

handiena duena emakumeei dagokie. Hala ere, zifrei erreparatu baino ez da egin behar, oraindik lan handia egin behar dela ikusteko.

Birara bueltatuz, azaroan Mexikora joango zarete. Zelako harrera du Doctor Deseok Euskal Herritik eta Espainiatik kanpo?

Mexikon eromana da benetan. Oso pasio handia azaltzen dute, berton baino handiagoa. Hirugarren aldia da azteken herrira joango garena eta espero dugu pasio hori gure bira guztietan azaltzen jarraitzea.

Birari urtarrilean emango diozue amaiera, Bilbon. Ondoren?

Publikoa albo batera utzi eta buru-belarri ekingo diogu hurrengo lanari, 2016an kaleratuko denari. Eta birari agur esateko, behar bezalako jaia egingo dugu Santana aretoan. Hori goizeko zazpiak arte dugu gordeta, eta sorpresa asko egongo dira.

Txinbo kalea, 9
48170 ZAMUDIO
94 452 26 75

BIDE-GORRI

Askotariko pinboak - Plater konbinatuak
8:00etatik irekia
WIFI gunea

AmAr
ileapaindegia

Asteartea-ostiralea:
9:00-19:00
Laburubata:
8:00-13:30

Uribe plaza, 1 behea
Zamudio
94 4520419

ama
taberna

Leizaola plaza, 7 - behea (ZAMUDIO)
94 655 93 69

RPM
MAYORISTAS INFORMATICOS

ENPRESETARAKO INFORMATIKA
SAREEN MANTENIMENDUA
ZERBITZU TEKNIKOA

Avda. Pinoa 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio
Tel: 944521544 - <http://www.rpmmayoristas.com>

ZAMUDIO MOTOR IDENTICA

94 452 1616
94 452 1624

Pol. Torrelagoliti
Pab. 6, Bloque 3
48170 ZAMUDIO
BIZKAIA

ESPEZIALITATEA:
TXAPA ETA PINTURA

RUBEN
ERLOJU-DENDA BITXITEGIA

Lehendakari Leizaola plaza, 5
48170 Zamudio
94 452 14 49

t/a: Itxaso Marina

Dokumentala egin baino lehen, Akeztari sekula ez zitzaion burutik pasatu aktorea izateko aukera. "Inoiz ez!". Hogeita bi urte ditu eta metal-eraikuntzei buruzko goi mailako ikastaro bat egiten dabil. "Eta etorkizunean horretan aritzea espero dut". Anaiaren bidez izan zuen *Aita* dokumentalerako castingaren berri. Kartela bidali, eta esan zion kartel horretan ageri zen mutilaren antza zuen pertsona baten bila zebiltzala; 18 urtetik 25era bitarteko mutil bat zen. Baldintzak betetzen zituela eta, beraz, anima zedila castingean parte hartzera. "Ados", esan nion nik, 'baina baldintza batekin: zuk ere hartu behar duzu parte'. Baietz esan zidan... Baina gero enteratu nintzen ez zuela argazkirik bidali. Kabroial (kar, kar)".

Castinga online egin zen. Amak argazki-booka egin zion Akeztari, eta argazkiak emailaz bidali zizkioten Chemari. "Hark eta haren senideek izan zuten aktorea hartzeko ardura. Neu hartu ninduten, José Salcedoren antz handia dudalako. Zer etorri zitzaidan burura ni aukeratu nindutela esan zidatenean? Ba... pentsa ezazue!".

Chema Salcedo urtarrilean etorri zen Bizkaira eszena batzuk grabatzera, baina Akeztak martxoko filmatzean hartu zuten parte. "Egun batean egin genuen dena. Goizean, Eibarren grabatu genuen, Akondia mendian. Handik Artxandara joan ginen, "La huella" gudarien oroimenezko eskultura inguruan grabatzera... *Pozas* kalerara jaitsi ginen gero, eta azkenik, San Mamesera. Oso goiz hasi eta oso berandu amaitu genuen".

Salcedo eta musika arduraduna izan ezik, filmatze-ekipoko kide guztiak hemengoak ziren eta Akeztza haiekin ibili zen pertsonaia prestatzen. "Arropa erosi genuen: milarraizko prakak, abarkak... Hori martitzen batean egin genuen eta Chema barikuan ailegatu zen. Komentatu genuen zelan egin gauzak, eta gidoia eman zidaten... Ama maitea! pentsatu nuen nik". Eta, gainera, aurre egin behar izan zion aktore-

Lezamarrak José Salcedo gudaria antzeztu du Aita dokumentalean

Fikziozko gudaria, ezusteko aktorea

AKETZA ALBERDI BEASKOETXEA

Chema Salcedo Peruko kazetariak zuzendutako *Aita* dokumentalean hartu zuen parte Akeztza Alberdi lezamarrak. Salcedoren aita, José Salcedo Molinuevo, Irrintzi batailoiko gudaria izan zen Gerra Zibilean, eta haren historia jaso du perutarrek lan horretan.



ak prest egon behar diren betebherrari: pertsonaiaren karakterizazioari. "Chemak traba bi baino ez zituen ikusi: alde batetik, ilea luzeegi nuen; eta bestetik, haren aitak begi argiak zituen, eta nik, ordea, ilunak. Ez kezkatzeko esan nion, ilea moztu behar banu, moztuko nuela, eta lentillak ere ipiniko nituela. Grabazioa hurrengo egunean egitekoa zen, beraz, ile-apaindegiz ile-apaindegi ibili nintzen, haietako batean ilea moztu zidaten arte. Bitartean, lentillak erostera joan ziren ekipoko batzuk". Oso profesionala da Aketza, duda barik.

Gidoia etxean ikasi eta hurrengo egunean, goiz-goiz abiatu Eibarrera. Hotza galanta eta arazotxo teknikoak. "Lehenengo aldia zen lentillak ipintzen nituena. Furgoneta barruan nengoen, lentillak ipintzen saiatzen, negar batean... Lurrera erortzen zitzaizkidan... Zikinkeriaz bete ziren... Chemak esan zidan berriro ez saiatzeko, baina nik erantzun nion lortuko nuela, ezinbestez... Eta lortu egin nuen, bai, ordubete eta erdi pasatu ostean! (kar, kar)".

Aberasgarria

Azaldu digunez, ez daki ezer aktorea izateari buruz, ez du baliabiderik horretarako, eta askotan ahazten zitzaion esan behar zuena. "Baina ez zen ezer gertatzen: grabazioa eten, errepikatu eta konponduta!". Lotsa ere pasatu zuen, Pozas kalean gehienbat. "Eibarren ez ninduen inork ezagutzen; Bilbon, aldiz, beste kontu bat zen. Anaiaren lagunekin egin nuen topo... Bestalde, kalean topatzen nituen



pertsonekin hitz egin behar nuen, baina kamara eta fokua ikusten zituztenean, alde egiten zuten!".

Aita dokumentalak José Salcedo Molinero gudariaren historia azaltzen du. Salcedok 1951. urtean emigratu zuen bere familiarekin Andeetako herrira, bere semeak, Chemak, bost urte zituela. "Aitaren historia amets baten bidez kontatzen du eta han aitarekin batera bizitzea gustatuko zitzaizkion momentuak azaltzen ditu: gerra, Athleticen partida bat... Dokumentala apur bat arraroa da, baina oso ondo egon zen".

Egindako lanarekin pozik dagoela esan digu, eta dokumentalaren estreinaldian, bere burua pantailan ikusi zuenean, lotsa sentitu zuela. Oso jende interesgarria eta jatorra ezagutu du eta asko ikasi du. "Adibidez, Eibarren grabatu genuenean, bertako historian adituak diren lagun batzuekin egon ginen, eta azalpenak eman zizkiguten mendian zeuden lubakiei buruz, morteroei buruz, herriko arma-industriari buruz...". Estreinaldian ere oso momentu hunkigarriak bizi izan zituzten. "Etorri ziren batzuk gerra garaia ezagututakoak ziren eta beste askoren senideak frontean ibilitakoak ziren. Ezagunak, bizi-penak... zituzten komunean".

Hasieran esan bezala, Aketzak ez du aktorea izateko asmorik, baina, hala ere, ez litzaioke inportako esperientzia errepikatzea, "oso aberasgarria izan delako eta egunero ez delako halako aukerarik izaten". Beraz, batek daki ez ote dugun pantailan berriro ikusiko.

Hemen prestakuntzak lortu daitezke berarekin

Uztzagaitza Kalea, 1 | Tel.: 94 403 40 60 | info@txorierri.net
48160 - DEIO | Fax: 94 403 40 61 | www.txorierri.net

Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIAKO BATXILERGOAK

LANBIDE HEZIKETAKO ZIKLOAK

FABRIKAZIO MEKANIKOA

- * Mekanizazio teknikaria
Erdi mailako zikloa (2 ordu)
- * Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko goi-mailako teknikaria
Goi-mailako zikloa (2 ordu)
- * Produktzioaren Programazioa goi-mailako teknikaria
Goi-mailako zikloa (2 ordu)

SEGURTASUNA ETA INGURUMENA

- * Ingurumen-Heziketa eta Kontrola goi-mailako teknikaria
Goi-mailako zikloa (2 ordu)

ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA

- * Automatizazio eta Robotika Industrialeko goi-mailako teknikaria
Goi-mailako zikloa (2 ordu)
- * Telekomunikazio- eta Informatika-Sistemako goi-mailako teknikaria
Goi-mailako zikloa (2 ordu)

MERKATARITZA ETA MARKETINA

- * Salmenten kudeaketako eta Merkataritza Arloetako goi-mailako teknikaria
Goi-mailako zikloa (2 ordu)



“Ezagutu aukeratzeko”: Lan-orientabide programa 2014-2015



Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak, EGAZ Txorierri Ekonomi Garapenerako Zerbitzuaren bidez, BTEK 2014 jardunaldia antolatu du hirugarren aldiz azaroaren 25erako. Ekintza Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) hirugarren eta laugarren mailetan dauden Txorierriko ikasleen gurasoei dago zuzenduta, eta eskualdeko prestakuntza-programek eskaintzen dituzten aukera soziolaboralak ezagutaraztea du helburu.

Jardunaldian hiru hizlari arituko dira. Alex Loustaunauk, Egaz Txorierriko gerenteak, eskualdeko enpresek gehien eskaintzen dituzten profilak zeintzuk diren azalduko du. Bestalde, Mariví Cuatrogok, Politeknika Ikastegia Txorierriko pedagogia-koordinatzaileak eta ekintzailetzaren arduradunak, lanbide heziketa arloan dagoen eskaintza edukiko du hizpide, eta Esteban Laradogoitia unibertsitate ikasle-terburuz arituko da. Laradogoitia enpresa harremanetarako eta komunikaziorako saileko zuzendariordea da Industria Ingeniaritza Teknikoko Bilboko Unibertsitate Eskolan.

BTEK 2014 jardunaldia “Ezagutu aukeratzeko” programaren lehenengo ekintza da. Hori Txorierriko gazteei zuzendutako lan-orientabide programa da, Mankomunitateak eta EGAZek ipini zuten martxan, eta Bizkaiko Foru Aldundiko Gazteria Sailak diruz laguntzen du. Egitasmoak eskualdeko sektore nagusi bik, industria sektoreak eta zientzia eta teknologia sektoreak hain zuzen ere, eskaintzen dituzten lan aukerekiko interesa bultzatzea du helburu. Horretarako, ikasleak eta haien senideak era dibertigarri eta motibagarri batean hurbiltzen ditu lan eta prestakuntza mundura. Jardunaldian izena ematea webgunearen bidez egin behar da. Jardunaldia BTEK Teknologiaren Interpretazio Zentroan izango da eta, nahi izanez gero, izena eman dutenek bisita gidatua egin ahal izango dute instalazioetatik. “Ezagutu aukeratzeko” programak beste ekintza hauek ere eskaintzen dizkie Batxilergoko ikasleei:

Etorri eta zure esperientziaren berri eman

Hainbat sektoretako profesionalak ikastetxeetara hurbildu eta haien heziketa eta lan esperientziaren berri emango die ikasleei.

Informazio-mahai sektoriala

Eskualdeko enpresek bertoko ekonomia-jardueraren errealitatea hurbilduko dute ikastetxeetara, haien historia, helburuak, ikuspuntua, jarduera... ezagutarazteko.

Enpresak bisitatzea

Enpresa nagusien instalazioetara bisita gidatua egiteko aukera dago, haien lan esperientzia zuzenean ezagutzeko.

Enpresetan egonaldia

Ikasle batek goiz bat emango du lan-gile batekin eta horren eginbeharretan hartuko du parte: elkarriketak, bilerak, eguneroko lana...

BTEK jardunaldia

Eguna: 2014ko azaroak 25

Ordua: 18:00etatik 20:00etara

Lekua: BTEK Teknologiaren Interpretazio Zentroa. Astondo bidea, 602 – Teknologia Parkea. Derio

Izena ematea (derrigorrezkoa): azaroaren 23ra arte.

Informazio gehiagorako:

EGAZ Txorierri

94 453 63 70

ezagutu.txorierriavalle.com





"Eman giltza" kanpaina

Euskara familia bidez transmititzeko

Txorierriko Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak, Bizkaiko beste udalerrri batzuekin elkarlanean, aurtan ere "Eman giltza" kanpaina jarri du martxan. Kanpainaren helburua, euskara etxetik transmititzeko eta bultzatzeko daukan garrantzia nabarmentzea da.

Horretarako Mankomunitateak, alde batetik 0-1 urteko umeak dauzkaten gurasoei eta bestetik, 2-3 urtekoak daukatenei bidali die materiala, etxeetan erabilgarri izan dadin.

Honako hauek dira, besteak beste, kanpainaren euskarririk garrantzitsuenak:

Webgunea

www.emangiltza.com webgunean, gurasoentzat transmisioa bermatzeko giltza izango diren aholkuak, estekak eta argitalpenak, testigantzak... agertzen dira. Webgunea duela hiru urte garatu zen eta aurtan edukia eguneratu eta osatu egin da. Webgunea, gurasoen tipologia aintzat hartuta, hiru hizkuntzatan agertzen da: euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez.

Kuku liburuxka eta DVD berria

Iaz liburuxka eguneratu zen eta aurtan, liburuxka hori oinarri hartuta, guraso eta haurrentzako DVDa egin da. Liburuxkaren helburua, bereziki 2-3 urteko umeak dauzkaten gurasoei, umeekin

euskaraz aritzeko baliabideak eskaintzea da eta horretarako oinarritzko hiztegia, ohiko akatsak, umeekin aritzeko jolasak, abestiak... eskaintzen dira.

Oraingoan, baina beste aurrerapauso bat eman nahi izan da eta liburuxkarekin batera, aurtan sortu berri den DVDa ere erantsi da, guraso eta umeek etxean erabil dezaten. Gurasoen atalean liburuxkako informazioa digitalizatu egin da eta besteak beste, hiztegiko hitzak, esamoldeak, esaldi zuzenak... euskaraz zelan esan behar diren entzuteko aukera izango dute. Horrez

gain, liburuxkan ikasitakoa ariketen bitartez praktikan jar dezakete eta umeekin zelan jolasten den ere erakusten zaie adibide interaktiboekin.

Umeek, bestalde, sarrerako pantailan zazpi pertsonaia aurkituko dituzte eta pertsonaia bakoitzak eduki bat landuko du: zenbakiak, forma geometrikoak, hiztegia, koloreak.... Umeek, pertsonaia bat aukeratu eta jolastu besterik ez dute egin behar, eta horrela trebetasun batzuekin batera hizkuntza bera ere landuko dute.

Beraz, gurasook, eman giltza zuen seme-alabei!



Hondakin organikoak erabilita autokonposta egiten duten txorierritarrak oso pozik azaldu dira jarduerarekin. Horiek zein autokonposta egiteko asmoa dutenek adierazi duten zailtasun bakarra egituratzailea lortzea izan da. Zailtasuna eragozpen bihur ez dadin, Mankomunitatea osatzen duten sei udaletxeetan materia lehorra lortzeko gune bat atondu da. Gune irekiak dira eta edozein momentutan sar daiteke bertara.

Guneak leku hauetan daude:

–**Derio:** Rekalde egoitzara sartzeko biribilgunea.

Autokonpostarako egituratzailea

–**Larrabetzu:** Goikola auzoko parkinga.

–**Lezama:** Garaioltza 83, ikastetxetik gertu.

–**Loiu:** Ortu ekologikoa (Elizondo bidea, 4 zenbakitik gertu).

–**Sondika:** Berreteaga industrialdea.

–**Zamudio:** Udal hilerriko aparkalekua.

Informazioa eta planoak Mankomunitatearen webgunean daude eskuragarri: www.e-txorierri.com.

Autokonpostajearen inguruan Mankomunitateak egindako kanpainei esker, 500 familiak baino gehiagok murriztu dute hondakin-poltsen erabilera eta euren konposta egiten dute. Bizkaiko Foru Aldundiak diruz lagundu die kanpainoi. Orturik, lora-tegirik edo lursailik ez dutenek edukiontzi marroia erabili behar dute autokonposta egiteko. Horretarako, izena eman behar dute Kultur Birikan, Derion; liburutegian, Larrabetzun eta Sondikan; eta udaletxean, Lezaman, Loiu eta Zamudion.

Sondikako ahots bajuak

TXUMA OLAGÜE TALDE KORALA

Denporak aurrera egiten dau, gelditu barik. Eta konturatu orduko mende erdia pasau da. Halan gertatu jake Txuma Olagüe Sondikako talde koraleko kideei, izan be aurten 50 urte bete dira ahots bajuen taldea sortu zane-tik. Karmelo Gastañagak eta Juanxu Yebrak, presidente-ak eta korukideak hurrenez hurren, hasiera-hasieratik daroe bertan eta taldearen gorabeheren barri emon deuskue. Hareekaz batera, Andoni Azkorra egon da, gaur egun taldearen idazkaria dana.

t: Itxaso Marina / a: Jon Goikouria Larrabeiti

Azaldu deuskuen moduan, taldea 1964. urtean sortu zan Txuma Olagüeren ekimenez. "Musikazale amorratua zan, eta garai hatan abade ebilen Sondikan". Emakumezkoek eta gizonezkoek osatuta-ko parrokia-taldea eratu zan, mezatan abesten ebana, baina talde horretako gi-zonak hasi ziran guztiek batera egiten ebezan entseguen ostean lotzen, saioak beren kabuz be egiteko. Eta ondoren, ta-bernara, gogoz entseatutako abestiak praktikan ipinteko. Ahots bajuen taldea halantxe sortu zan. "Hogei lagun ginan. Batez be mezatan abesten genduan do-meketan, antolatzen zan kultura-ekitaldi-ren baten, alboko herrietako eleizetan ha-ra joateko gonbitea egiten baeuskuen...".

Txuma Venezuelara joan zan misiona-ri 1968. urtean eta taldearen ardurea Je-sús Llonak hartu eban. Eta haren ostean, Antolín Zarragak, taldearen zuzendaria izan zanak, harik eta hori 1972. urtean desagertu zan arte. "Mezea esateko mo-dua aldatu zan. Herritarrek mezatan ge-hiago parte hartzeko eskatzen hasi zan,

han abestu eien, eta taldea bertan behera itxi genduan". Baina hori arrazoi nagusia izan bazan be, ez zan bakarra izan. "Ez-kontzen hasi ginan, seme-alabak izaten... eta batzuk herritik kanpo joan ziran bizi-ten. Halanda be, batzuk jarraitu genduan tabernan alkartzen eta abesten. Sondika herri kantaria izan da beti".

Isiltasuneko hiru hamarkaden ostean, Txuma Olagüe ahots bajuen taldea barri-ro osatu zan 2003. urtean. Baina eratze-prozesu hori ulertzeko, Txuma misinoeta-tik itzuli zan garaira egingo dogu atzera. Ahots mistoen taldea 1988. urtean eratu zan barriro, bere zuzendaritzapean. Aba-dea zazpi urte beranduago hil zan eta tal-dekideak Txuma Olagüeren oroimenezko kontzertua hasi ziran antolatzen. "Tal-de mistoan, ahots bajuen taldea osatu gen-duan kideetarik batzuk be bagengozan, eta akordau jakun 2003. urteko emonaldi-rako barriro alkartu eta abestiren bat abestu geinkela. Emonaldia amaitu eta ahots mistoen abesbatzaren zuzendariak, Paula Pérezek, esan euskun tamalgarria zala taldeak ez jarraitzea. Eta beno, he-men gagoz".

Festara

Hasierako taldekideei kide barriak al-kartu eta 25 gizonezko osatutako taldea dira gaur egun. Zuzendaria aurrera jarrai-tzera animau ebazan emakumea da: Paula Pérez. Bizkaiko Abesbatzen Elkartean

*"Sondika herri
kantaria izan
da beti"*





Stressless®

Urriaren 8tik azaroaren 8ra
% 20ko deskontua
besaulki eta sofa guztietan

 **SUITE DELUX**
DESKANTSURAKO MARKA BEREZITUAK

Derio · Seminarioan bertan, beheko solairuan · 944 545 147
www.suitdelux.com

(BAE) dagoz federauta eta lau hitzordu garrantzitsutan hartzen dabe parte urtean zehar: Begoñan egiten dan Bizkaiko Abesbatzen Astea, Udabarriko Kontzertuetan, Txuma Olagüeren oroimenezko jaialdian eta Txorierriko Gabon-kanten jaialdian. Horrezaz gainera, herri batetik edo bestetik deitzen badeutsee, bada, hara be joaten dira. "Guk ez dogu musika arloko ikasketarik. Belarriz abesten dogu, entseguetan ikasi doguna... Baina esan beharra dago asko hobetu dogula hasi ginanetik. Ohiko euskal abestiak a besten doguz, habanerak, kantu lirikoren bat, operaren bategaz be ausartu gara... Euskeraz abesten dogu, katalanez, ingelesez, alemanez, italieraz... gure erara, noski".

Beren kontzertuetara sondikoztar asko azaltzen dira, publiko leiala dabe, eta kanpora ateraten diranean, hareekaz batera be joaten dira. "Giro berezia sortzen

"Kide batzuk 80 urtetik gorakoak dira eta gazteenak, hogeta hamar eta piku urte ditue"

da. Emonaldien ostean be bai. Kopauan, esate baterako, lehenengoak gara abesten. Burura jatorkun lehen abestia, kantetan gehien gustaten jatana *Festara* da. Baina zuzendariari ez jako asko gustetan zelan egiten dogun... Bere ustez, ondoen egiten dogun abestia *Elurra mara-mara* da". Berba onak baino ez daukiez zuzendariarentzat. "Pazientzia handikoa da, ez da haserratzten eta bikain zuzentzen gaitu. Badaki non egiten dogun huts eta la-

gundu egiten deusku zuzentzen. Emonaldien ostean berba gozoak esaten deuskuz beti, eta zerbait kritikau behar badau, hori beste momentu baten egiten dau".

BBK-k lehiaketa bat antolatu ebala kontau euskuen, eta parte-hartzaileek Schubert konpositorearen *Ave Maria* piezaren bersino bat egin behar ebela. Hiru sari emon ziran. Taldearen zuzendaria, Paula, epaimahaikideetariko bat izan zan eta gainontzekoek galdetu eutsien ea ausartuko litzateken hirugarren saria eskuratu eban bersinoa Sondikako talde koralagaz abestera. Baietz erantzun eutsen. "Egilea gu abesten ikustera etorri zan eta asko gustau jakon; sorpresa ederra hartu eban. Egia esateko, bersinorik gatzena zan eta oso ondo atera jakun".

Entseguak Santa Kurtzeko ermitan egiten dabez, astean bitan. "Baina hotz handia egiten dau neguan eta Udalak baimena emon deusku sasioi horretan



Ale-apaindegia
TXPI
M^a Antonia Llodio
TXPI
Txorienko etorbidea, 6
Tel.: 94 452 02 70
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

Construcciones-Reformas
IÑIGO BARCENA
Igeltserotza orokorra
Arbolandxa kalea, 8 - 1.º zkl.
ZAMUDIO
Tel/Fax: 94 452 29 10
Móbil: 665 70 33 12

FRUTAK BARAZKIAK
Produktu ekologikoak
Hainbat ogi eta pastel
Gaztelumendi, 3 - behea | 48195 Larrabetzu | 94 455 89 19

entseguak Kultur Etxean egiteko". Ordu-bete eta erdiko entseguak dira eta, esan deuskuenaren arabera, kideak oso serioak dira eta hara guztiak azaltzen dira gehienetan. "Batzuk 80 urtetik gorakoak dira eta gazteenak hogeta hamar eta piku urte ditu. Kezkatzen gaitu ordezkorearen gaiak. Ez dakigu orain gagozanak faltatzen garanean taldea ez ete dan desagertuko... Ez da erraza jente barria, eta batez be gazteak, erakartea".

Udalak diru-laguntza bat emoten deute eta kideek kuota bat be ipinten dabe, zuzendariari ordaindu eta gainontzeko gastuei aurre egin ahal izateko. "Lehen, urteeraren bat egin behar bagendu, BAEk autobusa ipinten euskun, baina murrizketak egon dira eta orain autobusa geuk ordaindu behar dogu, edo autoz joan".

Begoña

Bizkaian eta Bizkaitik kanpo ibili dira kantaten; Haro edo Villarcayon, esate baterako. Eta gustauko litxakie kanpora gehiagotan ateratea, baina gatxa ikusten dabe oztopo ekonomikoagaitik eta denpora ezagaitik. Behin Naviako abesbatzea konbidatu eben herrira eta harridurea sortu jaken Sondikan hain talde ona egoalako. "Izan be, nahiko ondo egiten dogu. Sei talde koral onenen artean gagozala esango geunke. Bestalde, behin Ohioko abesbatza bat be etorri zan Sondikara. Euskal Herritik egozan biran eta konbidatu genduzan". Eta zein da eszenatokirik onena abesteko? "Ba, Begoñako basilikea. Jentetza handia batzen da bertan".

Urteurrenaren haritik, ekitaldi bat egin eben Santa Kurtzeko jaietan eta Santa Zeziliari begira musika-emonaldia eskiniko dabe Danok bat Portugaleteko otxoteagaz. "Txorierriko Gabon-kanten jaialdiari be Sondikan emongo deusagu amaiera".

Talde koralean musika-zaletasunagaitik dagoz, abestea izugarri atsegin dabela. Terapia egiteko modua be badala aita-tu deuskue, kezak-eta tarte baten ahazteko. Gainontzekoek beren beharra baloraten dabela sentiduten dabe eta horregaitik eskerrak emoten deusez publikoari, herritarrei, Udalari, txorieritarrei eta hareekaz era baten edo bestean alkarlanean dabilzan guztiei. Halan, bada, jarraituko dabe Sondikan musikea, kultura eta ohiturea lantzen. Hori mende bat bete arte izango ahal da!

Goian, abesbatzearen kideak Agate Deuna egunean, Sondikan. Eskumaldean, Txuma Olagüe. Behean, abesbatzea, ekitaldi batean.





HARATEGIA

ALBERTO

Arbolantxa, 4
T: 94 452 08 25
48170 ZAMUDIO

Alaia

fruta-denda

Etkez etxeko zerbitzua
Bertoko produktuak

Telleri, 5
48170 Zamudio
94 481 05 85



GAMINIZ

JATETXEA



Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" N 43°17'37" W

www.gaminiz.com



Zamudioko azokeak Alemaniako zaporea ekarriko deusku aurtan; izan be, azaroaren 1ean November-festea egingo da. Han saltxitxak eta garagardoa dastatzeko aukerea edukiko dogu. Horrezaz gainera, Txokolate, Gozoki eta Artisautza Azokea egingo da eta hasierea emongo jako Limusin errazako Abeltzarien Txapelketari. Azokearen egun nagusia hurrengo egunean, domekan, izango da. Aurrekoetan moduan, baseritarrek euren produkturik onenak eroango dabaz Zamudiora, eta, horrezaz gainera, abeltzarien txapelketaren sari nagusiak emongo dira. Bestalde, idi-probak egongo dira barikuan, zapatuan eta astelehenean.

Jaiak iragarten dauzan txupina azaroaren 7an, barikuan, botako da. Jaiok hilaren 11ra arte iraungo dabe. Barikuan Zamudizar txapelketa egingo da. Zer dan hori? Ba, gura dauanak bere abileziak aurkeztu

*Zamudizar txapelketa
egingo da: gura
dauanak bere abileziak
aurkeztu ahalko
ditu jendaurrean*

*Kontzertuak: Garagilak
26, Artxoak,
Vendetta, Trikizio*

ahalko ditu jendaurrean, abestu, txistak kontatu, dantzatu... Mozorro txapelketa be izango da, aurrekoari lotuta egongo dana. Musikea Garagilak 26 taldearen esku egongo da.

Gastronomia arloko txapelketa edukiko dogu zapatuan: porrusalda txapeleketa, hain zuzen be. Zamudioko Kamara Koralk eta Pentagrama Sondikako akordeoi taldeak emonaldia eskainiko dabe eleizan iluntzean; eszenatoki nagusira Artxoak, Vendetta eta Trikizio taldeak igoko dira gauean.

Eskupelota partidak izango dira domeka goizeko ekitaldi nagusiak; eta euskal dantzen alardea, arratsaldekoa. Astelehenean mus eta briska txapelketak egongo dira eta martitzenean, Zaindariaren eguna ospatzeko, mezea emongo da eleizan.

Sanmartinak, urteko azkenak

Txorierriko herrietan eta auzoetan jairik jai ibili gara maiztetik hona, baina oraindik urteko azken jaietz gozau behar dogu Zamudion. Nekazaritza eta Abeltzaitza Azokeak, aurtengoa 29.a izango dana, motorrak berotuko dauz aurreko asteburuan.



Vendetta taldea

Especialitateak:

- Pintxoak
- Plater konbinatuak
- Iberikoak

Lehendakari Agirre plaza, 2
48170 Zamudio
94 656 11 14

Crazy Guitar

Zamudio

HORTZ KLINIKA

GANDIAGA

94 608 62 30 - 31

klinigagandiaga@euskalnet.net

10:00etatik 20:00etara arte
eta larunbatetan (aurretiko txanda)

- Odontologia orokorra
- Implanteak
- Ortodontzia
- PADI

Txantxangorri, 2 - lokala 1. ezk.
(sarrera Lehendakari Agirre Plazatik)
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

Parte hartu
gure jaietan



Jaiak
euskaraz bizi!



ARTEA & ÉROTA
JATETXEA

Ospatu gugaz
Sanmartinak

Dastatzeko menua:
30 € + beza

Kalidadezko lehengaiak
erabiltzen doguz

Arteaga Anzola, 63
48170 ZAMUDIO
94 452 10 80
restaurant@arteayrota.com
www.arteayrota.com

*Jaietan be,
euskara jalgi hadi
Zamudioko herrira*



**zamudion
euskeraz?
hoba ez!**

**ARAMENDI
DASTALEKUA**

TARTAK
PASTELAK
ENKARGUZ

Oz, 6
48170 ZAMUDIO
94 452 20 49



BAR TXIKI

ESPEZIALITATEA, TORTILLAK

Lehendakari Ieizaola Plaza, 6
48170 ZAMUDIO -Bizkaia
Telefonoa: 94 452 04 68



*Ileapandegia
Ana Belén
estetika - solariuma*

Perretxiko, 4 lonja - Tel.: 94 403 68 60 - 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)



a: ZamudioOrain aldizkaria

Jai-egitaraua

Urriak 31, barikua

–20:30: Idi-probak.

XXIX. AZOKA

Azaroak 1, zapatua

–II. Txokolate, Gozoki eta Artisautza Azokea.

–Bizkaiko Limusin errazako Abeltzarien XV. Txapelketea.

–10:30: Ganadua pisatzea.

–11:00: Abere lehiaketea (emeak).

–12:00: November-festa: saltxitxak eta garagardoa dastatzea.

–17:00: Abere lehiaketea (arrak).

–20:30: Idi-probak.

Azaroak 2, domeka

–10:00: Limusin abeltzarien, Zamudioko ganaduaren eta nekazaritza produktuen erakusketea.

–11:00: Bizkaiko Limusin errazako Abeltzarien XV. Txapelketearen enkantea.

–12:00: Idiazabal gaztaiaren dastaketea komentauko da.

–Bizkaiko Limusin errazako Abeltzarien XV. Txapelketearen behi, zezen eta ganadutegi onena aukeratzea.

–13:00: Bizkaiko Limusin errazako Abeltzarien XV. Txapelketearen sariak banatuko dira.

–13:30: Nekazaritza Lehiaketearen eta Emakume baserritarra Argazki lehiaketearen sariak emongo dira.

Azaroak 3, astelehena

–20:30: Idi-probak.

Azaroak 7, barikua. Mozorro Eguna

–17:00: Mortzila txapelketa-erakusketea.

–19:00: Txupina eta gozokiak.

–19:05: Sanmartinetako kartel irabazleari saria emotea.

–19:15: Kalejirea, Bertokogaz eta Gazte Elai txistu taldeagaz.

–20:00: Mozorro txapelketea eta Zamudizar txapelketea, Oihan Vegagaz.

–21:00: Lagunandrek prestatutako porrusaldea, Adintsuen etxean.

–22:00: Mortzila txapelketearen sariak

–23:00: Kontzertua: Garagilak 26.

Azaroak 8, zapatua

–11:00: Kalejirea, Gazte Elai txistu taldeagaz.

–Umeentzako jolasak.

14:00: Koadrilen arteko porrusalda txapelketea eta herri bazkaria, frontoian.

–18:00: Txarangea.

–20:00: San Martín XXVI. kontzertua: Pentagrama Sondikako akordeoi taldea eta Zamudioko Kamara Korala, San Martin eleizan.

–21:30: Txarangea

–23:00: Kontzertuak: Artxoak + Vendetta + Triki-zio.

Azaroak 9, domeka

–10:00: Eskolartekoen eskupeleta partiduak, frontoian.

–12:00: Lau eta erdiko eskupeleta finala, frontoian.

–13:00: Euskal dantzak, Hiru Bat taldeagaz.

–17:30: Gazteentzako tartea.

–18:00: Umorezko bakarriketa.

Azaroak 10, astelehena

–16:00: Mus eta briska txapelketea, Adintsuen etxean.

Azaroak 11, martitzena. San Martin

–12:00: Mezea. Ostein, kopaua.

–14:00: Herri bazkaria, Truiuondo egoitzan.

–16:00: Puzgarriak, eskolan.

–18:00: Umeentzako antzerkia, eskolan.





**Carrefour
express**

ORDUTEGIA
Astelehenetik ostiralera arte
9:00-14:30 / 17:00-20:30
Larunbatean
9:00-14:30

Pago kalea, 5
48170 ZAMUDIO



**Magalarte
Txakolina**

Iñaki 94 455 65 08
Jabi 94 452 14 31

ARETXABALETA: BORDA ETA BOTILARTEA

Bizkaiko Txakolina
Denominación de Origen

75 cl.
10,75 % vol.



**hotela
jatetxea
aretxarte**

Teknologi Parkea - Eraikuntza, 200
48170 ZAMUDIO - (BIZKAIA)
Telefonoa: 94 403 69 00
Faxa: 94 403 69 01
e-mail: hotel@aretxarte.com
e-mail: reservas@aretxarte.com
www.aretxarte.com



**ASADOR
ARAMENDI**

**EZKONTZAK
BATAIOAK
BANKETEA
JAUNARTZEAK**

Arteaga auzoa, 119
Tlfnoa.: 94 452 11 58
ZAMUDIO



**ASADOR
FUENTENE berria**
"lur eta itsasoko baserria"

Gosariak
Afariak
Enpresa-bazkariak
Ekitaldiak
Jantoki pribatuak

ESPEZIALITATEA:
Okela eta arraina
txingarretan erreta

LEKUNBIZ-AUZOA 26
ZAMUDIO (BIZKAIA)
94 452 23 79
www.eldadofuenteneberria.com

Susterrak Taberna

Mortzilak
barikuan eta zapafuan



Zamarripa Enparantza, 2 944069027 48170 Zamudio



**TOLDOS
TXORIERRI**
TOLDOS B. GOYOAGA

Lona industrialak
Sareak
Eguzki-ohialak
Alokatzeko lonak



Torrelarragoiti ind, P2
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 12 58
Faxa: 94 452 07 44
Gasolindegia ondoan



**Restaurante
JANA-JATETXEA**

Eguneko menuak
Menu bereziak
Jaunartzeak, bataioak eta ezkontzak

Torrelarragoiti ind. P-7
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

Telefonoa 94 452 35 26
Tel./Faxa 94 452 06 64

Gorbeia, 7 Behea
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)
Tel.: 94 452 21 41
Faxa: 94 452 21 42
www.gestionzamudio.com
gestionzamudio@gestionzamudio.com

**Gestión
Zamudio**

Aholkularitza Fiskala
Jon Vázquez García
AKTUARIO-EKONOMILARIA

Derio, euskaltzaleen topagunea



a: Aner Mentxaka, Oihane Goienetxe eta Ana Leniz

TopaEguna, Euskal Herriko Euskara Elkarteen Eguna, ospatu zen urriaren 11n Derion. Hirugarren TopaEguna izan da aurtengoa, eta Euskal Herriko hainbat txokotatik erakarri zituen euskaltzaleak Deriora. "Bihotza hunkituta daukagu. Indarberrituta sentitzen gara, indarberrituta eta sasoiko, nekeak neke", adierazi zuten Tximintx euskara elkarte-kideek *Derioko Plaza* agerkari digitalaren bidez.

"Ein daigun topa" lelopean, berbak ereiten eta 15 urte barru euskararen egoera zelangoa izango den pentsatzen



Inprimatu zure posterra
airetik ateratako Bizkaiko argazki onenekin
Pilo bat daukazu aukeratzeko

cianoplan
GLOBAL PRINTERS

www.bizkaiadesdeelaire.com

Sar zaitez zure eskaera egiteko

9,32€

-tik hasita
BIZZ baxterre



eman zioten hasiera egunari, eta bederatzi elkartek beren esperientzia partekatu zuten ekitaldira hurbildu zirenekin. Handik aurrera, euskal giroa, jaia, musika, aldarte ona... nagusi izan ziren herriko kaleetan: umeentzako jolasak, batukada, kantu-jira, kilikiak, buruhandiak, taloa, txakolina, bazkaria, erromeria, kontzertuak...

Elkarteak eskerrak eman dizkie TopaEgunari era batean edo bestean beren ekarpena egin zioten guztiei: Udalari, Topaguneari, Txorierriko eta inguruko euskara elkartei, derioztarrei eta egunean zehar antolatutako ekitaldietan parte hartu zuten guztiei. "Hurrengo urtean, Lasarte-Orian egingo dugu topa eta topo. Irribarrean ahoan eta euskara ardatz. Mila igurtzi eta musu egun hau posible egin duzuen guztiei. Zuok ere Tximintx zarete".



PATXI KOOP

FATXO KOOPERABISA ELKARTEA
Herriko politzaria | Etxeare 4, 48170 Zamudio (Bizkaia) | Tel: 94 452 587 | info@paxi-koop | www.paxi-koop

BAR RAFI
ESPEZIALITATEA: PINTXOAK

Rafael García Tejero

Oiz Kalea, 5
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

T: 94 406 08 08
Móvil: 607 406 613

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA
Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)

SANTI MAMI
ALBAILARITZA
Nerea Pedrosa C/4, 517
COOP. GANADERA ZAMUDIO DERIO
Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15
Faxa: 94 454 12 15

GORBEIA MERTZERIA

Gorbeia kalea, 7
ZAMUDIO
94 855 90 06

Peñasko
arraindegia

Mendiko, 4
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 0808

t/a: Gaizka Eguzkitza

Iñaki Lekerikak Basalbeiti txakolina egiten dau. Haren baserria Lezaman dago, eta izen bera dau. Berea ustiapen txikia da, hektarea bikoa, eta asteburu bitan batzen ditue mahatsak. "Azken asteburuan lagunak konbidatzen doguz eta jai-eguna egiten dogu. Aurten 50 lagun batu gara bazkaltzen. Eta ondo emon behar deutsezu jaten; bestela datorren urtean ez dira itzuliko (kar, kar)". Iñaki betidanik da baserritarra, eta etxean beti egin dabe txakolina. "Aitak aititaren lekukoa hartu eban eta neuk, hareena biena. Gaur egun, arrebeagaz egiten dot behar".

Iñakiren esanetan, aurtengo txakolina ona izango da, igazkoa baino askoz hobea. "Matematikari bi gehi bi lau dira, baina baserrian, ez, eta urte guztiak ez dira bardinak. Aurten uzta dotorea euki dogu. Igazkoa, aldiz, txarrenetarikoa bat izan zan. Oraingo honetan 12.000 mila litro ekoiztu dot, baina mahats pilo bat saldu dot, beste 10.000 mila litro egiteko modukoa".

Basalbeiti txakolina orain dala 15 urte sartu zan Bizkaiko Txakolinaren Jatorrizko Deituran. Iñakik salmenta zuzena egiten

Hiru txakolin tragu

Hainbat txakolingile dagoz Txorierrin, eta urrian oso lanpetuta ibili dira, mahatsak batzeko sasoia izan dalako. Laster txakolin barria dastetako aukerea eukiko dogu, eta bitartean gure iragarleak diranakaz egin dogu berba: Iñaki Lekerika eta Iñaki eta Jabi Aretxabaleta. Guztiek uste dabe txakolin goxoa eukiko dogula aurten.

dau, bitartekari barik, bai tabernetan, bai azoketan, bai baserrira hurbiltzen dan jenteari. "Normalean, bezeroak aurreko urteetakoak dira". Ziurrenik, txakolin prefektuaren bila datoz, eta hori, Iñakiren eritxiz, "beste tragu bat eskatzen dauena" da. "Lehen, garratza zan txakolina, eta orain, goxo-goxoa. Niri ez bata ez bestea, erdibideko bat gustetan jat".

Magalarte

Jabi Aretxabaletak Magalarte Zamu-dio eta Zabaldondo txakolinak egiten ditu, eta bat dator Iñakigaz. "Txakolinak bere garraztasuna euki behar dau, bere ikutua.

Orain modan dagoz goxoenak, baina txakolinak apur bat garratza izan behar dau". Jabik be uste dau datorren urteko txakolina oso ona izango dala, "mahatsak be oso onak izan diralako". "Igaz euri asko bota eban eta polena kendu eban horrek, eta ondorioz, ez zan mahats gehiegirik egon. Igaz, 17.000 litro ekoiztu genduan, eta aurten, 35.000 litro". Halanda be, Jabik ez deutso litro-kopuruari garrantzi gehiegi emon gura. "Gehiegi ekoizten badogu, prezioak bajatu egingo dira eta komertzialki ez jaku komeni".

Jabik leku askotan saltzen dau txakolina: tabernetan, azoketan, zuzenean... Ba-

*I. L.: "Txakolin
perfektua? Beste
tragu bat
eskatzen dauena"*

*J. A.: "Txakolinak
bere garraztasuna
euki behar dau,
bere ikutua"*

*I. A.: "Adineko karisma
galdu barik, edateko
moduko txakolina
egin behar da"*



Iñaki Aretxabaleta, Magalarte Lezama txakolina



Iñaki Lekerika, Basalbeiti txakolina

natzailleak be erabilten ditu eta horrela, leku askotara ailegetako gauza da: Gasteiz, Madril, Bartzelona... "Gero eta gehiago saltzen dogu kanpoan. Horrek oihartzun handiagoa emoten deusku. Gaur egun, txakolina hobea da. Lehen, esate baterako, Bilbon txakolina eskatuz gero, oso txarra zan batzuetan. Orain ez, ordea".

Magalarte izenpean, Jabiren anaiak, Iñakik, be ekoizten dau txakolina. Aretxabaletarren azken lau belaunaldiek egin dabe txakolina. Gaur egun, Jabik Zamudion egiten dau behar, eta Iñakik, Lezaman. Baina zein da onena?, galdetu deusegu maltzurkeria puntu bategaz. "Biok egiten dogu txakolin ona. Bakotzak erabagi dagian zein dan onena (kar, kar)", esan deusku Jabik. "Bai, urte baten jentekak, txantxetan, esaten deusku neuri atara jatala hobeto, eta hurrengoan, Jabiri...", aitatu dau Iñakik.



Jabi Aretxabaleta, Magalarte Zamudio eta Zabalondo txakolinak

Jatorrizko Deituraren presidentea

Gaur egun, Iñaki Aretxabaleta Bizkai-ko Txakolinaren Jatorrizko Deituraren presidentea da. "Gura barik egokitu jatan. Presidenteordea izan nintzan eta Juan Carlos Ercoreca aurreko presidentek itxi egin eban. Ez dakit noiz arte ibiliko nagan bertan, baina bitartean, ahalik eta ondoen egiten saiatuko naz. Buruhauste handiak ekarten deustaz karguak, erabagi asko hartu behar diralako. Baina tira..."

Dana dala, Iñakik denporea atera dau aurtengo txakolina ekoizteko. "Txakolin oso ona izango da. Oro har, txakolingileok urte batetik bestera gero eta hobeto egi-

ten dogu, tresneria, eskarmentua eta dedikazinoa gero eta hobea diralako. Aurtun, 40.000 litro egingo doguz, 2013an baino 15.000 litro gehiago". Iñakiren txakolinek hiru sari garrantzitsu irabazi zuten igaz, baina ekoizleak ez dau uste txakolin perfektua dagoanik. "Lortzen badot, jubilau egingo naz (kar, kar). Tradizionalki txakolina garratza izan da, baina publiko-arengana ailegau behar da. Nire ustez, horretarako, adineko karisma galdu barik, edateko moduko txakolina egin behar da. Zelan jakingo dogu ona ala txarra dan? Bat edandakoan, beste bat eskatzen danean".

Txorierrin, non?

-Basalbeiti txakolina:

Goitioltza auzoa, 37 (Lezama).
94 455 61 46.

-Magalarte Zamudio eta Zabalondo txakolinak:

Arteaga, 107 (Zamudio).
94 452 14 31.

-Magalarte Lezama:

Goitioltza auzoa, 92 bis (Lezama).
94 455 65 08.

TXORIERRI MARMOLDEGIA
Sukalde eta bainugeletako harriak
Fatxadak • Atariak • Hilerriak
Torrelarragoliti ind., 7 B P. - 2. nabea
48170 Zamudio (Bizkaia)
T./F.: 94 608 01 41-2

LIBURUDENDA PAPERDENDA
ZAMUDIO
Gorbea kalea, 5
Telefono / Fax: 94 452 29 10 - 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

RPS. 184/10
OPTIKA IKUSLAN
Arbolantxa kalea, 5, behea
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18

TALLERES JUAN ANDRES
AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA
PUNTUAN JARTZEA
Torrelarragoliti ind., 8 - 216 Pab.
Tel.: 94 452 07 09 - 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

LEANDRO LANDETA
HARAGITEGIA-URDAITEGIA
Oiz Kalea, 1 • Tel. 94 452 00 69 - 48170 ZAMUDIO

HORTZ KLINIKA
Idoia Zubieta
Osasun-zentroa & Hortz-esteka
HORTZ-PLANTEAK - ORTODONTZIA ESTETIKA
BARKATU JESUSILDIK
Dr. Amara kalea, 11 - 1. esk. • 48011 BILBO • Telefonos: 94 441 63 22
Urte plaza, 1 • 48170 ZAMUDIO • Telefonos: 94 452 13 70



DNA euskalduna duen murtziarra

MELANIA ROSIQUE | zientzialaria

t/a: Gaizka Eguzkitza

Melania Rosique Bartzelonan jaio zen orain dela 39 urte. Laster Caravaca de la Cruz (Murtzia) herrira joan zen bizitzen, familia hangoa baita. Eta 17 urte zituela, Euskal Herrira etorri zen. "Ama hona etorri zen lan egitera, eta ni, berarekin. Niretzat hona etortzea nahiko gogorra izan zen. Alde batetik, nerabea nintzelako eta hori beti da konplikatua. Eta bestetik, Murtzian dena utzi nuelako: nire bizitza, lagunak... Dena dela, ondo moldatu nintzen", esan digu.

Hona etorri zenean, Melaniak Murtziako doinu gogorra zuen eta hemengoek ez zioten ondo ulertzen. "Lagunek barre egiten zidaten nire ahoskerarengatik, eta nik erabiltzen nituen esamoldeak oso arraroak ziren euskaldunentzat. Unibertsitatean, esate baterako, azkar hitz egiten nuen eta barre egiten zidaten hitz batzuk ahoskatzean "e" hizkia erabiltzen nuelako. Adibidez, "casas" edo "tijeras" esan beharrean, "cases" eta "tijere" esaten omen nuen. Niretzat ez zen barregarria, baina eurentzat, bai, ordea (kar, kar)".

Gaztetan Gorlizen eta Plentzian bizi izan zen, baina duela bost urte Lezamara etorri zen, Gaizkarekin, bikotearekin, bizi-



tzera. "Oso herri lasaia da eta oso gustura gaude hemen. Jendea oso jatorra da eta primeran hartu gaituzte". Murtziako eguraldia oraindik botatzen du faltan, baina Euskal Herria izugarri gustatzen zaio: jendea, janaria... "Ia denbora tarte bera eman

Artista

Zientzia ez da Melaniaren pasio bakarra, artista ukitu bat ere baduelako. Ipuin bat hasi da idazten eta margolanak ere egiten ditu. Ez da harritzekoa, aitite, Blas Rosique, margolari famatua izan baitzen. "Berak pintura batzuk ditu erakusgai Murtziako Arte Ederren Museoan, eta hiru kaleri bere izena jarri diete Murtzian. Duela gutxi nire amama Carmen hil zenean, margotzeko grina sortu zitzaidan". Illo horretatik, bikoteak -sukaldaria da- eskatu zion logotipo bat diseinatzeko, eta jendeari asko gustatu zitzaion. Horrek bultzatu zuen Ekidazu abesbatzaren logotipoa egiteko lehiaketan parte hartzera. Eta azkenean irabazi egin zuen lehiaketa.

dut Murtzian eta Euskal Herrian, beraz erdi murtziar, erdi euskaldun sentitzen naiz (kar, kar)". Melania zientzialaria da eta ogibideaz aparte, bere pasioetako bat ere bada. Biologia ikasi zuen Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU) eta master bi ditu:

“la denbora tarte bera eman dut Murtzian eta Euskal Herrian, beraz erdi murtziar, erdi euskaldun sentitzen naiz”

bata, analisi klinikoetakoa; bestea, analisi forentsekoa. Murtziarrak DNA ikertu du, batez ere genetika forentse arloan. “Ikerketak egin ditut Y kromosomari buruz, gizonetakoak dutena. Behin, nire DNA ere aztertu nuen. Eta, antza denez, nire arbasoak, prehistorian, Babesgune Franko-Kantauriarrean, hau da Euskal Herri aldean, bizi izan ziren. Bitxia da! (kar, kar)”.

Dibulgatu eta ikertu

Melanari izugarri gustatzen zaio biologia, baina batez ere alderdi dibulgatzaile interesatzen zaio, hots, zientzia publiko orokorrarengana hedatzea. Ildo horri jarraituz, Vita Aidelos enpresa sortu zuen Gaizkarekin batera. “Bioteknologia-kit batzuk sortu genituen, zientzia irakasten den lekuetan erakusteko: zientzia-azoketan, ikastetxeetan, museoetan... Horien bidez, hain zailak diren prozesu batzuk praktikan azaldu ahal dira, jendeak zuzenean ikus ditzan. Esate baterako, DNA ateratzen genuen, ahaidetasun-diagnosiak egiten genituen, jakiak aztertzen genituen transgenikoak ziren ala ez jakiteko...”. Zoritarrez, krisiak bete-betean harrapatu zituen eta enpresa itxi behar izan zuten 10 urteko ibilbidearen ondoren.

Enpresa ez zen ongi atera, baina Melaniak lanean jarraitzen du. Gaur egun, zelula amei buruzko doktoretza dabil ikasten EHUn, BIOMICS ikerketa-taldean. Era berean, Zientzia eta Teknologiaren Espainiako Fundazioak (FECYT) eskatu dio zientzia-gida egiteko. “Bioteknologia etorkizuna da, eta horregatik, Gobernuak, diru-laguntzak murriztu beharrean, bultzatu beharko lukete ikerkuntza. Etorkizunean, bihotza edo gibelaren txarto badugu, gure zelulak erabiliko dira organo horiek osatzeko. Gaixotasun guztiak ez dira desagertuko eta beste batzuk sortuko dira, baina eritasun batzuk desagerraraziko ditugu. Dena dela, betiko ez dugu bizi nahi, ezta?”.



SARRERAK AURRETIK EROSTEKO:
TXARTELDEGIAN
Edozein ekintza hasi baino
ordu bat lehenago





SONDIKAKO KULTUR ETXEA
Cestero kalea, 1 (elizaren atzean)
Telefonoa 94.453.64.13



ANTZERKIA
THE GAGFATHER
Ylana Producciones
(Komediala)
Azaroak 15, 20:00etan
Prezioa 10 €



KHUMBA
87' AG (2D)
Azaroak 1, 18:00
Azaroak 2, 17:00



ZINEA
LA ISLA MINIMA
104' EG-16 (2D)
Azaroak 1, 20:30
Azaroak 2, 19:30



LAS TORTUGA NINJA
101' AG
Azaroak 8, 18:00 (2D)
Azaroak 9, 17:00 (3D)



EL JUEZ
104' EG-16 (2D)
Azaroak 8, 20:30
Azaroak 9, 19:30



SKE-REN X. URTEURRENA
LAS NUEVAS AVENTURAS DE CAPERUCITA ROJA
86' AG (2D) SARRERA DOAN
Azaroak 16, 17:00



AMOR EN SU PUNTO
104' EG-16 (2D) SARRERA DOAN
Azaroak 16, 19:30



LOS BOXTROLLS
97' AG
Azaroak 22, 18:00, (2D)
Azaroak 23, 17:00, (3D)



LASA Y ZABALA
107' (2D)
Azaroak 22, 20:30
Azaroak 23, 19:30



ALEXANDER Y EL DIA TERRIBLE, HORRIBLE, ESPANTOSO, HORROROSO
81' AG (2D)
Azaroak 29, 18:00
Azaroak 30, 17:00



INTERSTELLAR
169' (2D)
Azaroak 29, 20:30
Azaroak 30, 19:30

*onarra: produktorearen behar-izanen arabera, programazioak aldatuaketa, jasam ditzaizke

Azaroan, perretxikotan!



a: Emiliano de la Mata

Egunak gero eta laburragoak dira, hostoak hasi dira erortzen eta gehienoi oporrak amaitu zaizkigu, baina udazkenak hainbat gauza interesgarri egiteko aukera ematen digu. Esate baterako, perretxikoak batzeko sasoia da eta horixe egingo dugu azaroan berbalagunok, hilaren 15ean, hain zuzen ere. Egun horretarako, Txorierriko Berbalagun taldeak irteera antolatu du Lagatzu Zamudioko euskara elkartearekin batera. Mendira joango gara, ondo pasatuko dugu eta, bide batez, perretxikoak batuko ditugu. Gainera, hurrengo egunean, azaroaren 16an, bazkaria egingo dugu Zamudioko txokoa eta bezperan batutako perretxikoak dastatu ahal izango ditugu.

Ez da berbalagunok perretxikotara joaten garen lehenengo aldia eta apurka-apurka ohitura bihurtzen ari da, gero eta jende gehiagok parte hartzen duelako. Aurreko urteetan ere primeran pasatu genuen: perretxiko mota batzuk ezagutu ge-



nituen, ikasi genuen horiek zelan sukaldatu... Eta batez ere euskaraz gozatu genuen aisialdia, lagunez, berlagunez inguratuta.

Betiko moduan, ekintzak lagun guztiei daude irekita, baita argazkilaritzarako zaletasuna duzuenoi ere. Izan ere, aurreko urteetan moduan, perretxikoen argazkien lehiaketa egingo da aurtten. Lehiaketak kategoria bi izango ditu: umeak (14 urte baino gazteagoak) eta nagusiak. Kategoria bakoitzean sari bana emango da. Iru-diak jpg formatuan bidali behar dira lagatzu@lagatzu.org edo txorierrri.berbalaguna@gmail.com helbide elektronikoetara, azaroaren 20an baino lehen. Argazkiarekin batera, izen-abizenak, telefono-zenbakia, lekua, data, kategoria, posta elektronikoa eta, nahi izanez gero, izenburua zehaztu behar dira. Lagatzuko kideek aukeratuko dituzte irabazleak eta argazkirik onenak ikusgai jarriko dira Fernan eta Ama3 tabernetan, Zamudion, azaroaren 28tik aurrera.



**berba
Lagun**

INFORMAZIOA:
Telefona:
635 75 35 95
E-mail:
txorierrri.berbalaguna@gmail.com
Bloga:
www.aikor.com/txokoa/berbalagun
Antolatzaileak:
TOTOAN TEEF
Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea

ERREKA **ONDO**
JAT **ETXEA**

Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jaunartzoak, familien bazkariak

Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnoa: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29

**Garmendia
ardoak**

Pinoa pol., P-3B
ZAMUDIO
Tel./Faxa: 94 452 00 49

luz zamudio
ARGI APARATUAK

Nekazari kalea, 4 (lonja) Tel./Faxa 94 452 11 60
48170 Zamudio - Bizkaia



>>> Ikusten duzu aldea?
Zure esku ere badago

ZURE SALTOKIA ETA ZU

«PERTSONA» «HELBURU»

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Phising? Zer gara Interneteko arrantzan?

t: Xabier Díaz, BTEK-eko zuzendaria

Ziur asko, inoiz posta elektronikoren bat jaso duzue kutxa edo banketxe bate-tik, zeure datuak eguneratzeko edo egiaztatzeko eskatuz. Beharbada, loturan klik ere egin duzue eta banketxearen gu-nera joan zarete... Edo hori pentsatu du-zue. Mezua amua da; eta gure datuak, arrainak.

Phising hitza erabiltzen dugunean, iruzur digital bati buruz ari gara, zeinetan iruzurgilea konfiantzazko enpresa edo pertsona bezala agertzen baita. Mezua, gehienetan, posta elektronikoko baten bi-dez jasotzen dugu eta horrek webgune batera bidaltzen gaitu, datuak egunera-tzera edo egiaztatzaera gonbidatuz. Web-gunea espero genuen modukoa da disei-

nuari, koloreei, ikonoiei... dagokienez. Eta gainera, askotan, ezaguna egiten zaigu. Baina noski, webgune hori ez da benetan konfiantzazko enpresa edo pertsona batena, eta ustez eguneratzen edo egiaz-tatzen gabiltzan datuak iruzurgileak jaso-tzen ditu. Pentsa ezazue a ze nolako ez-beharra, datuak *paypal*, *ebay* edo kreditu-txartelarenak badira!

Zoritxarrez, hori uste baino gehiago gertatzen da. Gero eta gehiago gara Internet oporrak antolatu, arropa erosi edo finantza-eragiketak egiteko erabil-tzen dugunok. Baina erabiltzailea izatea eta aplikazio horien atzean zer dagoen jakitea ez da gauza bera, eta, zenbait iker-ketaren arabera, horregatik hain zuzen ere bada *phising*-a arrakastatsua. Har-vardeko Unibertsitatearen azterketa ba-

ten arabera, webgune bat benetakoa den jakiteko, erabiltzaileen % 23k itxura baino ez du kontuan hartzen; % 36k webgune-aren helbidea, hau da, helbidea eta en-presa bat datozen; beste % 23k protoko-loa segurua den egiaztatzen du, hau da, helbide-barran *https* edo giltzarrapoa agertzen den, nahiz eta batzuek orrian giltzarrapoa agertzen bada, ontzat ema-ten duten; eta % 9k ez du ziurtagiri digi-tala egiaztatzen.

Ez da erraza. Aurreko paragrafoa ira-kurri eta batzuek ez duzue ezer ulertu, ziur asko. Hori da dugun arazo nagusia eta *phiser*-ek horretaz aprobetxatzen di-ra. Gehienok iritsi berriak gara mundu ho-netara eta ez dugu prestakuntzarik jaso, edo jaso duguna eskasa izan da. Beraz, aholku batzuk:

–**Itxurak ez du balio:** webgune bat kopiatzea oso erraza da.

–**Ondo aztertu klik egin baino lehen.** Nork bidali dit mezua? Helbide elektronikoa pertsona@enpresa.com edo antzekoa da? Eta bada ere, kontuz! Sa-guaren erakuslea loturaren gainean jar-tzen badugu, nabigatzailearen beheko aldean lotura nora doan agertzen da: me-zuan *www.banketxea.com* ipini ahal da, baina benetan *www.lapurra.com* web-gunera joan. Onena nabigatzailean helbi-dea norberak idaztea da.

–**Kontuz elkarren antza duten guneekin.** Askotan benetako webgunea-ren antza duten webguneak erabiltzen dira, iruzurra disimulatzeko. Gure webgu-nea, adibidez, *www.btek.org* da. Inoiz mezu bat bidatzen badizuegu, ez zaituz-tegu *www.betek.org@www.museoak.com* edo *www.btek.museoak.com* web-gunetara bidaliko.

–**Kontuz helbide-laburtzaileekin** (*tinyurl*, *goo.gl*...).

–**Konexioa *https* dela ziurtatu,** hel-bide-barran hori edo giltzarrapoa ager-tzen direlako.

–**Nabigatzaileak segurtasun-ziur-tagiriarekin arazorik badu, ez jarraitu** eta ez onartu agiri berririk, batez ere leku ezezagun batean bagaude edo wifi publi-koa bada. Sarearen arduradunari eskatu-ko diogu laguntza.

Arazo gehienak neurri horiei jarraituz gero saihestuko ditugu, baina, mundu errealean bezala, ganoraz jokatzeta da aholkurik onena. Beraz, adi ibili!





t: Juan Luis Goikoetxea / a: Aritz Albaizar

Euskara 15 urte barru

Tximintx Euskara Alkartek eta Topaguneak itauntzen deuskue, ea hamabost urte barru euskararen egoera zelakoa izango dan. Erantzuna bat-batekoa da: euskaldunaren egoera zelakoa, euskararena halakoa.

Uste dot euskara subjektutik alden-du eta objektu bihurtu dogula. Honenbeste aditz; horrenbeste deklinabide eta hainbeste gramatikagaz, azkenean geuregandik aparteko fenomenotzat hartu dogu, ia. Euskara hartu nahiz itxi egiten da; apur bat nahiz asko jakin leiteke; euskaraz gainera, espainola eta frantsesa be hemengoak dira; atzenean, nahaste-borrastea. Baina hemen egia biribila hauxe

da: euskara geu gara; gu zelan, euskara halan. Jakin berbeta asko; izan, hizkuntza bateko seme-alaba.

Euskara hamabost urte barrurako –unibertso edozein gauza legez– aldatu egingo da; landare, zuhaitz, bedar autoktono asko baztertu egingo dira, edo galdu, eta kanpokoak etorriko dira euskararen lurretara; etorri be, globalizazioaren ibilgailuan.

Gainera, lekuan lekuko euskaratik berbeta hibridorantz joko dogu: bizkaieran “hain zuzen” (“hartan be”ren lekuan) entzungo da, eta Donesteben “amaitu”

(“bukatu”ren lekuan). Bestalde, euskara zientifikoa euskara batuan garatuko da sistematikoki. Halan be, freskotasanaren bila euskalkiaren intxaurpera joko da.

Gorago esan dogunez, hizkuntza pertsonarekin batera joanik, euskaldun barrien kopurua gora joango da eta, ondorioz, euskaldun zaharren hizkera baino modakoago eretxiko jako euskaldun barrien berbeteari.

Azken baten, askatasunera bidean, euskaldunok aginte handiagoa eskuratuko dogu eta euskara indartu egingo da.

lezama
consultorio veterinario
albaitaritza klinika
www.consultorioveterinariolezama.com

J.R. Galdona Madariaga
BI-515

servicio de urgencias
24h

94 455 56 19 Aretxalde, 21bis • 48196 Lezama

bai euskarari

Bai Euskarari
Ziurtagiria,
elko euskararen erabilera
erabakitzen laguntzen

ziurtagiriaren irakurlea

urrats biziak

Dilista-hanbursesak, jogurt-saltseagaz

Osagaiak (lau lagunentzat):

- 200 g dilista
- 60 g brokoli
- 80 g azenario
- Koilarakada bat garam masala*
- 90 g kipula
- Berakatz-atal bi
- Zuringo bat (irabiauta)
- Ogi arraspautua
- Orioa
- Jogurt-saltsa egiteko: 125 ml jogurt natural, berakatz-atal bat (txikitua), koilarakada bat limoi-ur, koilarakada bat menda (txikitua) eta gatz apur bat.

Prestetako errea:

Dilistak beratzen ipiniko doguz zortzi orduan. Hanbursesak egin baino ordu bi lehenago jogurt-saltsea prestaiko dogu.

Almaiz baten berakatz-atala zehatuko dogu gatz apur batez. Gainontzeko osagaiak gehitu, ondo nahastu eta jaulkiten itxiko dogu.

Dilistak xukatu eta kaiku baten ipiniko doguz gainontzeko osagaiak. Irabiagailuaz osagaiok birrinduko doguz, harik eta ora homogeen eta pikortsu bat lortu arte. Hozkailura sartu, eta han ordu biau eukiko doguz.

Zartagin baten orioa ipiniko dogu berotzen. Orea hartu eta zortzi bola egingo doguz. Bolak talotuko doguz hanbursesak-formea euki daien. Hanbursesak zuringo-ogi arraspauetan pasau eta alde bakotxetik prijiduko doguz gorritzen diran arte. Paper xurgatzaile baten ipiniko doguz orioa xukatzeke. Jogurt-saltsagaz aterako doguz.



*Garam masala Indiako sukaldaritzan erabiltzen dan espeziaren nahasketa da. Espeziak aldatu ahal dira lekuaren arabera. Guk honeek erabili doguz: martorri-hautsa, kumino-hautsa, kurkuma, kanela, piperbeltz baltza, iltze-belarra, jengibre, aneta eta kardamomoa.

Etxeko sukaldaritzak



Zurrurutuna

t: Maite Lekerika / a: www.cuchilloitenedor.com

Osagaiak (lau lagunentzat):

- 200 g makailao (txikitua eta gezatua)
- 4 berakatz-atal
- Kipula erdi bat (xerratan)
- Zoparako ogia edo sikua
- 4 piper txorizeroren mamina.
- Pipermina (nahierara)
- Oliba orioa
- Okela-salda arina
- 4 arrautza

Prestetako errea:

Kipula eta berakatzak buztinezko eltze baten erregosiko doguz, su ezitan. Pipermina eta ogia txikitu eta gehituko doguz. Eguurrezko koilara batez eragingo dogu. Piperra eta saldea gehitu eta irakiten eukiko dogu 15 minutuan. Makailaoa bota eta beste 10 minutuan izango dogu egosten. Jalgiten ordubetea itxiko dogu. Barriro berotu eta arrautzak gehituko doguz. Gogortzen diranean, zerbitzatuko dogu.



SERVICIOS Y MEDIO AMBIENTE

Bide garbiketa | Hondakinak biltzea eta garraiatzea | Ur eta estolda-sareak zaintzea eta mantentzea | Hiri tresneria mantentzea eta zaintzea | Lorezaintza zerbitzua | Eraikinen eta lokalak barutik garbitzea | Hondartzak garbitzea | Garbiguneak kudeatzea eta mantentzea | Lurzorua deskontaminatzea | Ingurumen-aholkularitza | Beste zerbitzu batzuetarako, galdetu.

INBISA Derio Enpresa-zentroa
Astintze, 6A - 1. solairua. 48160 DERIO
www.inbisaserviciosymedioambiente.com
Tel. 94 424 38 34



SARRIKOLA
OGITEGIA

Euskal pastela
Baserrinoko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta



Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84



Zer irakurri?


Garbiñe Larrauri (Liluraturia)

Irakurtzea gustatzen zaigunok bada-kigu zein garrantzitsua den liburu egokiak aukeratzea, eta gure umeengan zaletasun hori bultzatzea ez dela lan erraza. Txikiak direnean gurasook aukeratzen dizkiegu liburuak eta haiekin irakurri ere egiten dugu. Baina koskortu ahala aldatzen da kontua. Haiek bakarrik irakurtzen hasten dira eta, gainontzeko gauza guztietan moduan, argi dituzte euren gustuak. Beraz, irakurtzeko gogoia piztea nahi badugu, liburu asko eskaini behar dizkiegu gogoko dituztenak aukera ditzaten. Gainera, gurasook kontuan hartu behar dugu liburu bat ez gustatzea eta irakurtzea ez gustatzea ez direla gauza bera, eta komeni da ideia biak ez nahastea.

Irakurtzea txikitatik oso atsegin izan baduzu, bizitza osorako izango duzu bizio lagungarria, ikasteko, erlaxatzeko, ames- teko... Baina adi!, bat-bateko maitemin hori lortzeko, ezinbestekoa baita liburu

Ferno suzko herensugea

Piztien erronka



egokia aukeratzea. Nik 7 urtetik 11 urtera bitarteko umei zuzendutako liburu bat proposatu nahi dizuet: *Ferno, Suzko herensugea*. Adam Bladek idatzi du eta bilduma

arrakastatsu baten lehenengo emanaldia da. Esandako adin-tarteko neska-mutilei asko gustatzen zaizkien izaki mitologikoei eta zaldunei buruzkoa da. Tom abentura honetako protagonista eta heroia da eta Ferno herensugearen kontra borrokatu beharko du, bere herria salbatzeko. Pertsonaia gaiztoa ere badago, Marvel azti gaiztoa, Avandia suntsitzeko pizti magikoak sorgindu dituen. Liburuaren amaieran hurrengo abenturaren lehen atala dago, baita karta bat ere, jolasteko eta bilduma osatzeko.

Nik liburua irakurri dut eta ohartu egin naiz inguruko umei asko gustatzen zaiela. *Piztien erronka* bildumaren lehena da, baina badaude beste 27 abentura aukeran. Seme-alabei eskaintzen dizkizuen liburuen artean, kontuan hartu nire proposamena, ea baliagarria den zuentzat!

Familia osorako kalitatezko arreta, zure esku

Zaindzu Berriak
Logopedia
Podologia
Kiroprasajak

clínica dental
ZAINDUZ
hortz klinika

Txonteri etorbidea, 9 - Loria | Artea enaia | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 607 79 54 45
info@dentatzaindzu.com | www.dentatzaindzu.com

ZB
ESTETIKA-ZENTROA

Anguleri, 2 - LARRABETZU
94 455 81 44
www.centroesteticozb.com

Peluteria
Estetika

94 455 81 44
Anguleri 2, behe Larrabetzu-Bizkaia

Azokak

Sondika

- > Eskulangintza, Nekazaritza eta Abeltzaintza. Azaroaren 9an, 10:00etan.

Lezama

- > Trukea. Azaroaren 30ean, 11:00etan, frontoian. Trukezaleak-k antolatua.

Erakusketak

Sondika

- > "Herri kirolak", José Ignacio Loboren argazkiak. Azaroaren 3tik 27ra, Erakusketa Aretoan.

Derio

- > Perretxikoak. Azaroaren 2an, 10:00etan, Sollube kalean.
- > Kultur Birikan: Material etnografikoen maketak (azaroaren 5etik abenduaren 2ra); CCIV erakusketa kolektiboa (azaroaren 10etik 30era); Azterkosta. (azaroaren 11tik 18ra).

Larrabetzu

- > Terese Gazteluren artelanak. Azaroaren 3tik 14ra, arratsaldean, Angulerin.

Hitzaldiak

Derio

- > "Elikadura, kirola eta emakumeak". Azaroaren 6an, 18:30etan, Kultur Birikan.

Larrabetzu

- > Bernardo Atxagaren Nevadako egunak. Azaroaren 19an, 19:00etan, Angulerin.

- > *Euskara jendea* dokumentala eta hitzaldia (1. zatia). Azaroaren 26an, 19:00etan, Angulerin.

Ikastaroak

Lezama

- > Euskal kantak. Barikuetan, 19:30ean, Uribarri Topalekuan. Izena ematea: zorrizketan@gmail.com; 688 693 655.

Larrabetzu

- > Oinarrizko internet. Azaroaren 17tik 28ra. Izena ematea: azaroaren 12ra arte, Angulerin.
- > Literatura eskola: Hogeita hamar urte euskal literatur kritikan (1975-2005). Azaroaren 29an, 10:00etan, Angulerin.

Zamudio

- > Zen. Azaroaren 28an, 20:00etan; eta 29an eta 30ean, 11:00etan. Eskolan.

Ikuskizunak

Sondika

- > *Beti lagun*, umeentzako txotxongiloak. Azaroaren 7an, 18:00etan, liburutegian.

Derio

- > Umeentzako ipuin kontalaria. Azaroaren 13an, 17:30ean, liburutegian. Izena eman behar da aurretik.

Irteerak

Sondika

- > Sukarrieta-Mundaka. Azaroaren 19an. Izena ematea: azaroaren 19ra arte, liburutegian.

Derio

- > Perretxikoetara. Azaroaren 1ean, 8:00etan, Udaletxean. Untza taldeak antolatua.

Zamudio

- > Espejo. Azaroaren 16an, Arroeta taldeak antolatua.

Lezama

- > Done Jakue Bidea (Bilbo). Azaroaren 16an, 9:030ean, eskolan. Gailur taldeak antolatua.
- > Hijedo mendia (Burgos). Azaroaren 22an, 8:30ean, plazan. Gailur taldeak antolatua.

Musika

Txorierrri

- > Santa Zezilia. Derio: azaroaren 22an, 19:00etan, elizan (Ipar-Alde); Zamudio: azaroaren 23an, 11:00etan, elizan (Zamudioko Kamara Korala); Lezama: azaroaren 21n, 19:00etan, elizan (Ekidazu).

Derio

- > "Mozart eta klarineta". Azaroaren 21ean, 19:00etan, Gurea Aretoan.

Larrabetzu

- > Jexuxmai Lopetegi. Azaroaren 16an, 18:30ean, Hori Bain.

Txapelketak

Zamudio

- > II. Tallya. Azaroaren 28an, 18:00etan; eta 29an, 09:00etan.

Bar TRIPPY
ZURE GIRORIK ONENA

Gura baduzu ondo pasatu, musika ona entzun eta futbolinean jokatu, etorri zaituz Trippyra, Deriora

Behoko Kalea Bajoa
DERIO

t i k a k

EGUNEKO MENUA
lehenengo platera
bigarren platera
postrea
ogia
ardoria

9€

Bestorrene 5, Behea 48160 DERIO
T: 94 454 55 55

Jatetxea **SAN ISIDRO**

EUNKO ORELETAN ESPEZIALIZATUA ETA ETNEKO GOZOGINTZA APARTA

ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK

Karta zerbitzua - Laneko zerbitzuak - Jantoki pribatuak
Jantoki bakoitzean 180 toki - Sukaldaritza tradizionala

Telefonoa 94 454 07 88
Fax 94 454 14 18

Mungia eta etorbidea, 25
48160 DERIO

HAUR-MODA
Tximeleta

Gernikako Arbola, 8 DERIO
94 454 14 35

Nire Autoocasion

IMPORTAZIOA ETA SALMENTA

GERNIKAKO ARBOLA 10 (TRASERA) 48160 DERIO-BIZKAIA

Mobilak: 686 97 06 41 - 649 16 77 12
Telefonoa-Fax: 94 454 51 92
www.nireautoocasion.com info@nireautoocasion.com

harategia - urdaitegia
MIGUEL

ESPEZIALITATEAK:
URDAIAZPIKOA
ETA GAZTA

Mikel Deuna, 7 * DERIO 48160 * T: 454 52 94

Derioko merkataria elkarteko kideen saltokietan erosketak egiteagatik
5 TXEKE ZOZKATUKO ditugu

500€ nahi?



Elkartekide diren 3 saltokietan egiten dituzun 10€tik gorako erosketengatik. Azaroaren 1tik abenduaren 26ra. Oinarriak saltokietan izango dira.

Berezko argia duen merkataritza



UDAZKENA 2014

STIHL®

VIKING®



HAIZE-MAKINA



199€
TIK
AURRERA

ESKAINTZAK ETA AHOLKULARITZA

Eskaintzak, 2014ko abenduaren 31ra arte

MOTOZERRAK



199€
TIK
AURRERA



MOTOAITZURRAK



549€
TIK
AURRERA



BAKARRIK ZURE DENDA
ESPEZIALIZATUAN



BANATZAILE PREMIUN
BAKARRA BIZKAIAKO

agrojardín
Astikene

Astikene industrialdea, Berezi 23C
48160-Derio BIZKAIA
Tel.: 944 540 652 / Fax: 944 540 653
astikene@agrojardinastikene.com
www.agrojardinastikene.com